ESTATUTOS DEL
COLEGIO OFICIAL DE INGENIERÍA INDUSTRIAL
DE ALAVA

ARABAKO
INDUSTRIA INGENIARITZAREN ELKARGO
OFIZIALAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK 1

1. artikulua. - Izaera eta izena. 1
2. artikulua. - Aplikatzekoa den araudia. 1
3. artikulua. – Lurralde-esparrua. 1
4. artikulua. - Helbidea. 1
5. artikulua. - Elkargoaren helburuak. 1
6. artikulua. - Elkargoaren berezko eginkizunak. 1

TITULO II - ELKARGOKO KIDEAK 4

7. artikulua. - Elkargoko kide egitea. 4
8. artikulua. - Elkargoko kide egiteko eskakizun orokorrak. 4
9. artikulua. - Eskaerak behin-behinekoz onartzea. 4
10. artikulua. - Behin betiko onartzea. 5
11. artikulua. - Eskaera ukatzeko arrazoiak. 5
12. artikulua. - Onartzearen ondorio orokorrak. 5
13. artikulua. - Elkargokideen eskubideak. 5
14. artikulua. – Elkargokideen betebeharrak. 6
15. artikulua. - Eskubideak etetea. 6
16. artikulua. - Elkargokide izateari uztea. 6

III. TITULUA - ELKARGOAREN EGITURA 8

17. artikulua. - Elkargoaren organoak. 8
18. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusia. 8
19. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren eskumena. 8
20. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusia eratzea. 8
21. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordea. 8
22. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen eskumena. 9
23. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen osaera. 9
24. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen karguak. 9
25. artikulua. - Dekanotza. 9
26. artikulua. - Dekanordetza. 10
27. artikulua. - Elkargoko Idazkaritza eta Diruzaintza. 10

IV. TITULUA - HAUTESKUNDE-ARAUAK 11

28. artikulua. - Kargu hautagarriak. 11
29. artikulua. - Ohiko eta ezohiko hauteskundeak. Hauteskunde-aldia. 11
30. artikulua. - Hautesleak eta hautesle-errolda. 11
31. artikulua. - Hautagaiak. Aurkezpena eta aldarrikapena. 11
32. artikulua. - Bozketaren deialdia eta boto-txartelak. 12
33. artikulua. - Hauteskunde-mahaia. 12
34. artikulua. - Bozketaren edukia. 13
35. artikulua. - Bozkatzeko lekua eta era. 13
36. artikulua. - Botoen zenbaketa eta akta. 13
37. artikulua. - Hautatutako pertsonak aldarrikatzea. 14
38. artikulua. - Jabetza hartzea. 14
39. artikulua. - Karguen iraupena. 14
40. artikulua. - Karguak uztea. 14
41. artikulua. - Hutsik dauden karguak behin-behinekoz betetzea. 15
42. artikulua. - Hauteskunde-arauak osatzea. 15

V. TITULUA - FUNTZIONAMENDUARI ETA ERABAKIAK HARTZEARI BURUZKO ARAUAK 16

43. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren bilkurak. 16
44. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusirako deialdia. 16
45. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda. 16
46. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren quoruma. 17
47. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiko Lehendakaritza eta Idazkaritza. 17
48. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen bilkurak. 17
49. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordea biltzeko deialdia. 17
50. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen gai-zerrenda. 17
51. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen quoruma. 17

52. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordeko Lehendakaritza eta Idazkaritza. 18
53. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen bileretara bertaratzea. 18
54. artikulua. - Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen funtzionamendu orokorra. 18
55. artikulua. - Bozketak. 18
56. artikulua. - Gehiengoak. 19
57. artikulua. - Erabakiak hartzea. 19
58. artikulua. - Aktak eta ziurtapenak. 19

VI. TITULUA - ERREKURRITU DAITEZKEEN EGINTZAK ETA ERREKURTSO-ARAUBIDEA 20

59. artikulua. - Baliozkotasuna eta betearaztasuna. 20
60. artikulua. - Ofiziozko berrikuspena. 20
61. artikulua. - Errekurtsoak. 20
62. artikulua. - Gora jotzeko errekurtsoa. 20
63. artikulua. - Berraztertzeko errekurtsoa. 20
64. artikulua. - Jurisdikzio-errekurtsoak. 21

VII. TITULUA - ARAUBIDE EKONOMIKOA 22

65. artikulua. - Elkargoaren ondarea. 22
66. artikulua. - Elkargoaren baliabide ekonomikoak. 22
67. artikulua. - Elkargoaren aurrekontua. 22
68. artikulua. - Zorrak eta ordainketak. 22
69. artikulua. - Informazio ekonomikoa. 22
70. artikulua. - Urteko kontuak ikuskatu eta onartzea. 23

VIII. TITULUA - DIZIPLINA-ARAUBIDEA 24

71. artikulua. - Eskumena. 24
72. artikulua. - Arau-hausteak. 24
73. artikulua. - Zigor-prozedura. 24
74. artikulua. - Prozedura ebaztea. 24

IX. TITULUA - ONIRITZIA 26

75. artikulua. - Oniritziaren edukia. 26
76. artikulua. - Oniritzia lortzeko betebeharra. 26
77. artikulua. - Prozedura eta ebazpena. 26
78. artikulua. - Oniritziaren eskubideak. 26
79. artikulua. - Dokumentuak eta beste izapide batzuk erregistratzea. 27
80. artikulua. - Administrazio publikoei zuzendutako dokumentu-kontrola. 27
81. artikulua. - Sozietate profesionalei zuzendutako oniritzia. 27
82. artikulua. - Sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia. 27

X. TITULUA - ELKARGOKO PERTSONALA ETA BITARTEKO INSTRUMENTALAK 28

83. artikulua. - Bitarteko instrumentalak. 28
84. artikulua. - Enplegatuak eta aholkulariak. 28
85. artikulua. - Gerentzia. 28

XI. TITULUA - SOZIETATE PROFESIONALEN ARAUBIDEA 29

86. artikulua. - Aplikatzekoa den berariazko araudia. 29
87. artikulua. - Administrazioarekiko harremanak. 29
88. artikulua. - Sozietate profesionalak Elkargoan sartzea. 29
89. artikulua. - Elkargoko sozietate profesionala izateari uztea. 29
90. artikulua. - Elkargoaren eginkizunak eta ahalmenak sozietate profesionalei dagokienez. 29
91. artikulua. - Oniritzia. 29
92. artikulua. - Sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia. 30
93. artikulua. - Diziplina-erregimena. 30
94. artikulua. - Lanbidean sozietate gisa jardutea. 31
95. artikulua. - Sozietate profesionalen eskubideak eta betebeharrak. 31

XII. TITULUA - ESTATUTUAK ALDATZEA 32

96. artikulua. - Estatutuak aldatzeko ekimena. 32
97. artikulua. - Estatutuak aldatzeko prozedura. 32

AZKEN TITULUA ***33***
98. artikulua. - Elkargoa desegitea. 33
AZKEN XEDAPENA ***33***

I. TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. - Izaera eta izena.

Arabako Industria Ingeniaritzaren Elkargoa (aurrerantzean, Elkargoa) Zuzenbide Publikoko korporazio bat da. Nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun publiko eta pribatu osoa du bere helburuak betetzeko.

2. artikulua. - Aplikatzekoa den araudia.

Elkargoak, aplikatzekoak diren goragoko mailako arauei kalterik egin gabe, jarraituko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legean xedatutakoari eta Estatutu hauetan agindutakoari.

3. artikulua. – Lurralde-esparrua.

Elkargoaren lurralde-esparrua Arabako Lurralde Historikoa da.

4. artikulua. - Helbidea.

Helbide hau du: Bizkaia kalea 2, Vitoria-Gasteiz.

5. artikulua. - Elkargoaren helburuak.

1. Elkargoak helburu hauek ditu: Industria Ingeniaritzaren lanbidearen jarduna antolatzea, lanbide horren ordezkaritza instituzional esklusiboa izatea (une bakoitzean elkargo profesionalei aplikatzekoa zaien legerian ezarritakoaren arabera), Industria Ingeniaritzaren interes profesionalak defendatzea eta haren elkargokideen zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babestea; hori guztia gizartearen interes eta beharrekin bat etorriz.

2. Besteak beste, hauek dira Elkargoaren helburu nagusiak:

a) Bere esparruan, lanbidearen ordezkaritza instituzional esklusiboa izatea – Espainiako Konstituzioaren 36. artikuluan, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako elkargo profesionalei buruzko legeetan eta zuzenbide komunitarioan ezarritakoaren arabera – administrazio, instituzio, auzitegi, erakunde eta partikularren aurrean; eta legitimazioa edukitzea Industria Ingeniaritzaren lanbidearen interesetan eragina duten auzi guztietan parte izateko.

b) Dagokion eskumenaren barruan, lanbidearen jarduna antolatzea, etika eta duintasun profesionala eta gizartearekiko beharrezko errespetua zainduz.

c) Lanbidea defendatzea administrazio publiko, instituzio, auzitegi, erakunde eta partikular ororen aurrean, lanbidearen interes profesional orokor nahiz kolektiboetan eragina duten auzi guztietan parte izateko eskubideaz.

d) Bere kideak prestatzea.

e) Bere kideen artean gizarte aurreikuspena eta aseguramendua antolatu eta garatzea.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babestea bere elkargokideen zerbitzuetan.

6. artikulua. - Elkargoaren berezko eginkizunak.

1. Aurreko artikuluan adierazi diren helburuak betetzeko, Elkargoak indarrean dagoen Antolamendu Juridikoak esleitzen dizkion eginkizunak izango ditu.

2. Besteak beste, hauek dira Elkargoaren eginkizun nagusiak:

Eginkizun generikoak:

a) Etika profesionala eta herritarren eskubide eta interesak errespetatzen direla zaintzea.

b) Industria Ingeniaritzaren lanbidearen jarduna arautzea eta zaintzea, elkargokideak Justizia Auzitegien aurrean ordezkatuz, dela beren interesen defentsan, dela erakunde ofizial edo partikularrek eskatuta, aplikatu beharreko lege-aurreikuspenen eta zuzenbide komunitarioaren arabera.

c) Aurreko guztia gorabehera, Elkargoak parte hartu ahal izango du, gizartearen aurrean bere gain hartu duen erantzukizunaren arabera, esleitzen zaizkion edo bere helburuekin lotuta bere kabuz hala erabakitzen dituen interes orokorreko zereginetan, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz.

Administrazioarekin lotutako eginkizunak:

d) Administrazio publiko, instituzio edo erakundeekin lankidetzan aritzea interes erkideak lortzeko, haien aholkularitza- edo erabakitze-organoetan parte hartuz eta eskatzen dizkioten eta bere helburuekin lotuta bere ekimenez lantzen dituen irizpenak emanez. Kasu horietako batean ere, Elkargoaren jardunek ez dituzte xede izango Industria Ingeniaritzaren berezko zerbitzuak.

e) Justizia Administrazioarekin eta gainerako organo publiko eta pribatuekin lankidetzan jardutea, gai judizialetan aditu gisa esku hartzeko eska dakiekeen elkargokideen zerrenda emanez, edo, hala badagokio, beren kabuz izendatzea industria-ingeniaritzarekin lotutako ezagutzak behar dituzten gaietan.

f) Unibertsitateekin lankidetzan aritzea etorkizuneko tituludunak trebatzen, eta horiei jarduera profesionalean sartzen laguntzea, bidezko prestakuntza-ekintzen bitartez.

g) Elkargoak, gainera, eskubidea izango du Estatuko Administrazio Publikoaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, foru-administrazioaren eta tokiko administrazioren berezko eginkizunetan jarduteko, baldin eta hori xedatzen badute dagozkion administrazioetako organo eskudunek ebazpen, erabaki edo hitzarmen bidez. Berori dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

   Eskuordetzeko xedapenean, hitzarmenean edo erabakian ezarritako hedaduraz eta baldintzetan jardungo da eginkizun horietan.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak elkargo profesionalen arloan lantzen duen araudiko proiektu eta aurreproiektuen berri ematea eta entzuna izatea elkargokideen interesetan eragina duten xedapen orokorrak lantzeko prozeduran.

i) Administrazio Publikoekin, Erakundeekin eta Entitateekin lankidetzan aritzea azterlan, txosten eta estatistiken bidez, arbitraje-prozeduretan parte hartuz eta bere helburuekin zerikusia duten beste jarduera batzuen bidez, bai organo eskudunek eskatuta, bai Elkargoaren beraren ekimenez. Elkargoaren jarduketek ez dituzte inola ere Industria Ingeniaritzaren lanbideari dagozkion zerbitzuak izango helburu.

j) Administrazio publikoekin lankidetzan aritzea hezkuntza-jarduerak, prestakuntza-jarduerak eta hobekuntza profesionaleko jarduerak edo antzekoak egiten, batez ere horien elkargokideak ez direnean haien hartzaile esklusiboak.

k) Administrazio publikoetako aholkularitza- edo erabakitze-organoetan parte hartzea, dagokion araudiak ezartzen dituen baldintzetan.

Elkargoarekin berarekin lotutako eginkizunak:

l) Estatutuak eta barne-araudia onartzea eta horiek bete daitezen zaintzea.

m) Elkargoaren urteko kontuak eta aurrekontuak onartzea, aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren arabera..

n) Elkargoaren etika- eta deontologia-kodea onartzea eta bete dadin zaintzea.

o) Elkargoko kideek eskatuta, hartzekoak, ordainsariak edo zerbitzu-sariak kobratzeaz arduratzea, elkargoaren estatutuetan zehazten diren baldintzetan.

p) Lanbiderako eta elkargokideentzat egokitzat jotzen diren jarduerak antolatzea eta garatzea, Industria Ingeniaritzaren lanbidearen berezko zerbitzuak helburutzat izan gabe. Horretarako, Elkargoak enteak edo zerbitzuak sortu edo sustatu eta Administrazioarekin, instituzioekin eta erakundeekin itunak edo hitzarmenak sinatu ahal izango ditu.

q) Lanbidera sartzerakoan eta bertan jarduterakoan tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzen dela zaintzea, lanbide-eremuan inklusioa eta ekitatea sustatuz.

r) Lanbide-intrusismorik, lehia desleialik eta legez kanpoko publizitaterik ez onartzea; eta, jokabide horiek osatzen dituzten egitateen berri izanez gero, justizia-auzitegiak jakinaren gainean jartzea eta horretarako legez ezarrita dauden ekintzak baliatzea. Halaber, beharrezkoa baldin bada, zehapen- edota diziplina-ekintzak aginduko zaizkie Industria Ingeniaritzaren lanbidean legezko eskakizunak bete gabe jarduten dutenei.

Elkargokideekin lotutako eginkizunak:

s) Elkargokideen lanbide-zerbitzuen kalitatea egokia dela ziurtatzea, eta zerbitzuen hartzaileen legezko interesak eta eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

t) Elkargokideen lan profesionalak ikus-onestea eta lan edo dokumentu teknikoak erregistratzea, halakorik egitea eskatzen diotenean, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

u) Bai elkargokideen artean, bai elkargokideen eta bezeroen artean lanbidearen zioz sortzen diren gatazketan bitartekari aritzea arbitraje-bidean, alderdiak ados jarrita, halakorik egitea eskatzen diotenean.

v) Diziplina-ahala erabiltzea elkargokideek beren lanbidean egiten dituzten arau-hausteengatik, indarrean dagoen araudian eta aplikatu beharreko legearen 19. artikuluan ezarritako baldintzen eta prozeduren arabera.

w) Kideen artean prestakuntza teknikoko eta zeharkako prestakuntzako jarduerak antolatu eta egitea.

x) Bere elkargokideen laneratzea eta lanbide-aukerak hobetzeko ekintzak bultzatzea.

y) Bere elkargokideen ekarpen ekonomikoak erregulatu eta eskatzea, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

z) Lanbide-interesei mesede egiten dieten gainerako eginkizunak (hala nola elkargokideen arteko elkarreragina sustatzea eta profesionalen arteko topaleku izatea), Elkargoaren helburuak betetzeko egiten badira. Ildo horretatik, honako hauek barne hartzen dira: elkargokideen informazio- eskaerei erantzutea, ezarritako zehapen irmoei buruzko informazio-eskaerei erantzutea eta ikuskapen- zein ikerketa-eskaerei erantzutea, baldin eta Europar Batasuneko estatu kideren bateko edozein agintari eskudunek eskatzen badu, azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 27.4 artikuluan ezarritako baldintzetan (17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzkoa); eta, bereziki, kontroletan, ikuskapenetan eta ikerketan egiten diren informazio-eskaerei erantzutea, baldin eta eskaerak behar bezala justifikatuta badaude, eta lortutako informazioa zertarako eskatu zen, eta horretarako erabiltzen bada.

aa) Indarreko legerian nahitaezko aseguramendu-betebeharra ezarrita badago, elkargokideen aseguramendu-betebeharra betetzeko neurriak hartzea.

bb) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dien beste edozein eginkizun, bai eta elkargokideek ematen dituzten zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren eginkizun guztiak ere.

cc) Elkargoaren eginkizunak, estatutu hauetan berariaz jasota ez daudenak, indarrean dagoen legeria aplikagarrian xedatutakoaren arabera arautuko dira, bereziki Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legean xedatutakoaren arabera, bai eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren arabera eta aplikatu beharreko gainerako araudien arabera ere. Elkargoak legedi horrek ematen dizkion ahalmenez eta eskumenez baliatuz jardungo du.

TITULO II – ELKARGOKO KIDEAK

7. artikulua. - Elkargoko kide egitea.

1. Eskatutako titulazioa duenak eta estatutuetan adierazitako baldintzak betetzen dituenak Elkargoan onartua izateko eskubidea izango du. Elkargo Profesionaletan unean-unean aplikatu beharreko indarreko legeriaren arabera arautuko da Industria Ingeniaritzako lanbidean jarduteko elkargoko kide izateko betebeharra.

2. Elkargokideek eskubidea izango dute sartu zirenekoa ez den beste elkargo baten esparruan beren lanbidean jarduteko, baldin eta xede-elkargoak ezarritako arau orokorrak eta berariazkoak errespetatzen badituzte, indarrean dagoen araudia betetzeko. Ezin izango dute eskubide osoko kide gisa parte hartu xede-elkargoaren organoetan.

Elkargo bakar batean sartzea nahikoa izango da Estatuko lurralde osoan jardun ahal izateko, eta lehenengo elkargoan sartzeari dagokionez, helbide profesional bakarra edo nagusiaren elkargoa izango da. Europar Batasuneko profesionalak beste estatu kide batera aldi baterako lekualdatzen badira, indarrean dagoen araudiari jarraitu beharko diote, Europako Erkidegoko zuzenbidean kualifikazioak aitortzeko ezarrita dagoena aplikatzeko.

Ikus-onetsiarekin, ziurtapenarekin eta erregistroarekin lotutako gaietan, Elkargoak ezin izango die eskatu sartuta dauden elkargoari ez dagokion lurralde batean diharduten profesionalei inolako jakinarazpen edo gaikuntzarik, ezta bere kideei eskatu ohi dizkienez bestelako kontraprestazio ekonomikoak ordaintzerik ere.

3. Elkargokideak bi eratakoak izan daitezke, eskubide eta betebehar desberdinak ematen dizkietenak.
   a) Industria Ingeniaritzaren eskuduntza guztiak dituzten elkargokideak.
   b) Beren titulazioari dagozkion eskuduntzak dituzten elkargokideak, a) idatz-zatian sartzen ez direnak.

4. Gobernu Batzordeak elkargokidea ez den elkargo-loturako beste figura batzuk onartu ahal izango ditu, eta horien lotura-maila dagokion Araudian ezarriko da.

8. artikulua. - Elkargoko kide egiteko eskakizun orokorrak.

1. Arabako Industria Ingeniaritzako Elkargo Ofizialeko kide izateko, beharrezkoa izango da Elkargoan sartzeko eskaera egitea, baldintza hauetakoren bat betetzeaz gain:

   a) 7.3.a artikuluaren arabera – Industria Ingeniaritzako eskuduntzak dituzten elkargokideak – elkargokide izateko, Industria Ingeniaritzako eskuduntza guztiak ematen dituen titulazioa, masterra edo homologazioa aurkeztu beharko da.
   b) 7.3.b artikuluaren arabera elkargokide izateko – bere titulazioko eskuduntzak dituzten elkargokideak –, Industria Ingeniaritzaren adarretako titulu, master edo homologazio bat eduki beharko da, Kualifikazioen Europako Esparruko 7. mailakoa, edo baliokidea, Estatuak aitortua, Industria Ingeniaritzaren eskuduntza guztiak ematen ez dituena eta berezko lanbide-elkargorik sortu ez duena. Titulazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ingeniaritzako Kontseiluak onartu behar du.

2. Elkargokide izateak ez du ordezkatuko, eskurantzei dagokienez, indarreko legerian aitortutakoez bestelako eskubiderik. Bere titulazioari dagozkion eskumenak dituzten pertsonek lanbidean jarduteko, elkargoko kide izatea lege batek ezartzen duenean bakarrik izango da nahitaezkoa..

3. Hona elkargoko kide egiteko beste eskakizun batzuk:
   - Lanerako gaitasungabetuta ez egotea edo diziplina-zehapenik ez izatea.
   - Legeetan ezarritako bateraezintasun- edo debeku- kausen pean ez izatea.
   - Elkargoko kide egiteko arauak betetzea.

9. artikulua. - Eskaerak behin-behinekoz onartzea.

1. Elkargoan sartzeko eskaerak aurkezten diren unetik bertatik behin-behinekoz onartutzat hartzen dira.

2. Aurreko artikuluak aipatzen duen titulua edo bere egiaztagiria aurkezten ez duten eskaerak ezin izango dira inola ere onartutzat hartuko.

10. artikulua. - Behin betiko onartzea.

1. Elkargoko Gobernu Batzordeari dagokio eskaerak behin betiko onartzea.

2. Eskaera Elkargoaren erregistroan sartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, Gobernu Batzordeak eskaera behin betiko onartzea edo ukatzea erabakiko du.

   Aurreko paragrafoan aipatutako epea igarotzen bada eta inolako ebazpen espresik eman ez bada, behin-behineko onarpena behin betiko onarpen bihurtuko da, salbu eta entregatutako dokumentazioak lege- edo estatutu-aginduak betetzen ez baditu.

3. Eskaerak onartzea egintza arautua da. Eskaera ukatzea lege- edo estatutu-aginduren bat ez betetzean oinarrituko beharko da, eta interesdunari ukoaren arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio.

4. Eskaera ukatzen duen erabakia interesdunari jakinarazi ondoren, horrek Elkargoko Gobernu Batzordearen aurrean errekurtsoa jarri ahal izango du, Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua. - Eskaera ukatzeko arrazoiak.

Eskaera ukatzeko arrazoiak honako hauek dira:

a) Behar adinakoa tituluaren jabe ez izatea, estatutu hauen 8. artikuluaren arabera.
b) Eskaera arauen arabera ez aurkeztea, indarrean dagoen altako inprimakiaren arabera, edo Elkargoko kide egiteko eskakizunen inguruko beharrezko informazioa ez ematea. Eskatzaileak edozein akats edo huts zuzendu ahal izango du eskabidea aurkeztean, behin betiko ukatu gabe.
c) Estatutu hauetako 8.3 artikuluan adierazitako baldintzaren bat ez betetzea. Ez-betetze teknikoa edo dokumentala bada, eskatzaileak zuzendu ahal izango du, behin betiko ukatu gabe.

12. artikulua. - Onartzearen ondorio orokorrak.

1. Eskaera onartzeak eskatzailea Elkargoan sartzea ekarriko du, eta une horretatik aurrera hurrengo artikuluetan adierazten diren eskubideak eta betebeharrak izango ditu.

2. Elkargokide egiteak eskatzen du aseguru kolektiboko polizetan eta elkargoaren aurreikuspen-hitzarmenetan sartuta egotea, baita elkargokide egiteko eskaeran jasoarazitako beste elkargo-zerbitzu batzuetan ere, horiei buruzko arauetan ezarritako baldintzetan; betiere, indarrean dagoen legerian halakorik eskatzen bada edo elkargokideak berariaz eskatzen badu.

3. Elkargoko kide egiteko, ulertzen da Elkargoari baimena eman zaiola Gobernu Batzordearen ustez profesionalak diren datuak jakinarazteko, horiek elkargo-gidetan eta leihatila bakarrean sartzeko eta hirugarrenei lagatzeko, elkargo-eginkizunak bete daitezen; hori guztia leihatila bakarrari eta datu pertsonalen babesari buruzko legerian ezarritakoaren arabera eta legeria horrek ezartzen dituen mugekin.

   Era berean, ulertzen da Elkargoari baimena eman zaiola hark bere kideei jakinarazteko – bai bitarteko telematikoen, bai ohiko postaren bitartez – Elkargoak antolatutako jardueren inguruko informazioa – profesionala, gizartearekin eta kulturarekin lotutakoa nahiz ludikoa – edota hark hedatzeko egokia dela deritzon informazioa.

13. artikulua. - Elkargokideen eskubideak.

1. Elkargokide guztiek eskubide hauek izango dituzte:

   a) Elkargoko lurralde-esparru osoan bere lanbidean aritzea.

   b) Elkargoko lurralde-esparrutik kanpo bere lanbidean aritzea, 7.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

   c) Bere bezeroei Elkargoaren bidez kobratzea, Elkargoari askatasunez, berariaz eta bere borondatez hala eskatzen badiote.

   d) Elkargoaren ondasunak eta hark ezarrita dituen zerbitzuak erabiltzea eta horietaz gozatzea, baldin eta gainerako elkargokideen eskubideen kalterako ez bada.

   e) Estatutu hauetan jasotako gaietan eta eran hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.

f) Lanbidean eragina izan dezaketen egintza guztiak Elkargoko Gobernu Batzordeari jakinaraztea; behar izanez gero, hark esku har dezan.

g) Elkargokide gisa dituzten eskubide edo interesei edota Elkargoarenei edo lanbidearenei kalte egin zaiela irizten diotenean, Elkargoaren babesa eskatzea.

h) Estatutu hauen edo indarrean dauden gainerako arauen ondoriozko beste guztiak.

2. Elkargokide guztiek ordezkaritza-karguak lortu ahal izango dituzte estatutu hauen 31. artikuluaren arabera, baina beharrezkoa izango da Elkargoaren lurralde-eremuan egoitza pertsonala edo profesionala izatea.

14. artikulua. – Elkargokideen betebeharrak.

Elkargokideen betebeharrak dira:

a) Arauz dagozkien Elkargoko ohiko eta ezohiko kuotak ordaintzea elkargoa sostengatu eta garatzeko, baita zerbitzuetarako ezartzen diren kuotak eta eskubideak ordaintzea ere.

b) Lan profesionalak aurkeztea legeztatzeko eta ikus-onesteko eska daitekeen kasu guztietan, baldintza hori nahitaezkoa delako edo bezeroek berariazko eskaera bat egin dutelako.

c) Estatutu hauetan jasotako agindu guztiak zorrotz betetzea, baita Elkargoaren gobernu-organoek baliozkotasunez hartutako erabakiak ere.

d) Elkargoari jarduketa profesional irregularren edo lanbide-intrusismoko kasuen berri ematea, Elkargoak auzitegi eskudunei jakinaraz diezaien, eta horiek ikerketa egin eta, hala badagokio, zehapena ezar dezaten.

e) Batzar Nagusietan parte hartzeko eskubidea, pertsonalki edo ordezkaritza bidez.

f) Hautatuak izan diren karguak betetzeko eskubidea izatea, Gobernu Batzordeak arrazoizkotzat jotzen duen arrazoi justifikaturik izan ezean.

g) Bere jarduera profesionalaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun zibileko arriskuak dagokion aseguruaren bitartez estaltzea lege-mailako arau batek hala eskatzen duenean. Betebehar hori ez da nahitaezkoa izango baldin eta hirugarrenen eskubideak bermatuta badaude dagokion jardueran aplikatzekoak diren beste lege batzuen edo oro har aplikatzekoak diren xede bereko erabakien indarrez. Elkargoko poliza bat sinatu izana beti egiaztatuko da, baita elkargokideak berariaz eskatzen duen guztietan.

15. artikulua. - Eskubideak etetea.

1. Ezarritako epeen barruan ohiko edo ezohiko kuotak ordaintzen ez dituztenak elkargokide gisa etenda geratuko dira, eta atzeratutako kuota horiek eta etendura-aldian zehar gainerako elkargokideei kobratu zaizkienak ordaindu arte, elkargokide gisa legozkiekeen eskubide guztiak galduko dituzte.

   Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, ez ordaintzeak ekar ditzakeen diziplina-zehapenak ezarri ahal izango dira.

2. Estatutu hauen VIII. tituluan ezarritakoaren arabera, diziplina-zehapentzat hartu ahal izango da, era berean, eskubideak etetea.

16. artikulua. - Elkargokide izateari uztea.

Arrazoi hauengatik utziko zaio elkargokide izateari:

a) Heriotzagatik.

b) Interesdunaren beraren ekimenez.

c) Elkargoko Gobernu Batzordearen erabakiz, kuotak ez ordaintzeagatik edo Estatutu hauetan ezartzen diren ekonomia-betebeharrak ez betetzeagatik Estatutuetan bertan edo baliozkotasunez hartutako

erabakietan zehazten diren baldintzetan. Horretarako, aurretik bi errekerimendu egingo dira, gutun egiaztatuen bitartez nahiz Batzordeak erabakitzen dituen IKT telematikoetan.

d) Lanean jarduteko baldintzak ez betetzeagatik. Halakoetan, egitate eragozle hori antzematen den unetik bertatik sortuko da baja.

e) Lanbidean jarduteko gaitasungabetzea epai irmoaz ezarriz gero.

f) Elkargotik kanporatzeagatik, aurretiazko diziplina-espediente baten ondoren.

III. TITULUA - ELKARGOAREN EGITURA

17. artikulua. - Elkargoaren organoak.

1. Honako hauek dira elkargoaren zuzendaritza-organoak:

    a) Osoko-organoa: Elkargoko Batzar Nagusia.
    b) Gobernu-organoa: Elkargoko Gobernu Batzordea.
    c) Lehendakaritza-organoa: Elkargoko Dekanotza.

2. Elkargoko Gobernu Batzordeak komenigarritzat jotzen dituen batzorde guztiak eratu ahal izango ditu, eta denak Batzordearen mende egongo dira.

18. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusia.

1. Batzar Nagusia Elkargoaren borondatea adierazten duen organo gorena da, eta Elkargoko kide guztiek osatuko dute, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin, estatutu hauetan eta 18/1997 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Elkargokide guztiak behartuta egongo dira Batzar Nagusian hartzen diren erabakiak nahitaez betetzera, betiere erabaki horiek Legeak eta estatutuek emandako eskumenen barruan eta ezarrita dagoen prozedurari jarraituz baliozkotasunez hartzen badira.

3. Gobernu Batzordeak zehaztu ahal izango ditu Industria Ingeniaritzaren lanbidean eragina duten gaiak. Estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera diren elkargokideek bakarrik eman ahal izango dute botoa gai horietan.

19. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren eskumena.

Elkargoko Batzar Nagusiari dagokio soilik:

a) Elkargoaren estatutuak eta horien aldaketak onartzea.

b) Elkargoaren bat-egiteari, xurgatzeari, banantzeari, izena aldatzeari eta desegiteari buruzko erabakiak hartzea, indarrean dagoen antolamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

c) Elkargoaren aurrekontua eta urteko kontuak onartzea.

d) Onartutako azken balantzearen arabera Elkargoaren ondarearen % 10eko balioa gainditzen duten ondasunak edo eskubideak eskuratzeko edo besterentzeko baimena ematea.

e) Elkargoaren ohiko eta ezohiko kuotak finkatzea. Kuota horiek proportzionalak, ez-diskriminatzaileak eta oinarrituak izan beharko dute.

f) Gobernu Batzordearen kudeaketa onartzea edo, hala badagokio, gaitzestea.

g) Gobernu Batzordeko kideen lanpostu-jabetza hartzea, Estatutu hauen IV. tituluan ezarritako prozeduraren arabera.

20. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusia eratzea.

1. Eskubide osoko elkargokideek eskubidea izango dute Elkargoko Batzar Orokorrean parte hartzeko, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidearekin.
2. Elkargokideak beste elkargokide baten bitartez bakarrik izan daitezke ordezkatuak.
3. Elkargokide bakoitzak bi ordezkaritza izan ditzake gehienez, eta dagokion idazkiaren bidez izango dute balioa.

21. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordea.

1. Elkargoko Gobernu Batzordea izango da haren zuzendaritza-organoa.

2. Elkargokide guztiek bete behar dituzte Gobernu Batzordean bere eskumenen barruan eta ezarritako prozedurari jarraituz baliozkotasunez hartzen diren erabaki guztiak.

22. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen eskumena.

1. Elkargoko Gobernu Batzordeari dagozkio Elkargoaren zuzendaritza eta administrazioa, eta eskumena izango du Elkargoko Batzar Nagusiari berariaz esleitu ez zaizkion gai guztietan.

2. Zehazki, Elkargoko Gobernu Batzordearen eskumenak izango dira:

    a. Batzar Nagusiaren deialdia, legeak eta estatutu hauek ezarritako epeak eta prozedurak betez, eta bertan landu beharreko gai-zerrenda egitea.
    b. Elkargoaren aurrekontua eta kontuak aurkeztea eta, oro har, Batzar Nagusian aztertu behar diren gai guztiak prestatzea.
    c. Kide berriak onartzea.
    d. Elkargoaren ikus-onetsia ematea.
    e. Onartutako azken balantzearen arabera Elkargoaren ondarearen % 10eko balioa gainditzen ez duten ondasunak edo eskubideak eskuratzeko baimena ematea.
    f. Diziplina-espedienteak hastea eta horiek Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera ebaztea.
    g. Ekintza judizialak eta administratiboak eta mota guztietako jarduketa prozesalak baliatzea, eskuordetzeko eta ahalordea emateko gaitasunarekin.
    h. Gerentzia eta aholkulariak izendatzea.
    i. Estatutu hauen beste artikulu batzuetan ezartzen diren gainerako eskumenak.
    j. Osoko bilkurari berari dagozkion gaiak proposatzea, indarreko legerian eta estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

3. Gobernu Batzordeak hierarkikoki bere menpe dauden organoak sortu ahal izango ditu, hala nola, Dekanordetza, Idazkaritza, Diruzaintza edo Bokalak, eta Elkargoak behar bezala funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste organo batzuk, betiere estatutu hauetan eta indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat badatoz.

23. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen osaera.

1. Elkargoaren Gobernu Batzordea 11 pertsonak osatuko dute, elkargokide guztien artean aukeratuta, estatutu hauen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera. Dekanotza Gobernu Batzordearen buru izango da.

2. Batzar Nagusiak aukera izango du kargu kopurua gehienez 15raino zabaltzeko, baina zabaltze hori aipatutako erabakia hartu ondorengo hauteskundeetan soilik egin ahal izango da.

3. Batzordekideak Estatutu hauen IV. Tituluan xedatutakoaren arabera hautatuko dira.

4. Gerentzia Gobernu Batzordearen bileretara bertaratuko da, eta Dekanotzak edo Gobernu Batzordeak Elkargoko aholkulari ekonomiko, tekniko edo juridikoei deitu ahal izango die, puntualki edo aldizka. Aurreko guztiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa.

5. Gobernu Batzordeko kideek ezin izango dute Gobernu Batzordeko beste kide batzuen ordezkari gisa jardun.

24. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen karguak.

1. Gobernu Batzordearen buru dekanotza izango da, eta estatutu hauen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera hautatuko da. Gobernu Batzordeko gainerako kideak elkargokide guztien artean aukeratuko dira, estatutu hauetan ezarritako prozeduraren arabera.

2. Gobernu Batzordeko karguak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, estatutu hauetako IV. tituluan ezarritakoaren arabera. Gobernu Batzordeak zenbait kargu berrikusi edo birbanatu ahal izango ditu antolaketa-beharren arabera, baina betiere barne-demokraziaren printzipioak errespetatuz.

3. Dekanotzak eta Batzordeko gainerako karguek hurrengo artikuluetan zehazten diren eskudantziak izango dituzte.

25. artikulua. - Dekanotza.

1. Estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera Elkargora batu den elkargokide bat bakarrik izan ahalko da Dekanotzan.

2. Dekanotzari dagokio elkargoaren lehendakaritza eta ordezkaritza ofiziala, korporazio gisa.

3. Dekanotza Elkargoko Batzar Nagusiko eta Gobernu Batzordeko lehendakari izango da, eta Gobernu Batzordearen erabakiak betearazteaz arduratuko da. Agintaritza, auzitegi, erakunde eta entitate publiko eta pribatuekiko harremanetan ere Elkargoaren jarduteko gaitasuna izango du, nahiz eta, kasu jakin batzuetan, Elkargoko Gobernu Batzordeak eginkizun hori elkargokide jakin batzuei agindu diezaiekeen.

4. Bere sinaduraren bidez, batzarren aktak sinatu eta Elkargoak hartutako erabakiak betearaziko ditu. Gainera, ordainketa garrantzitsuak egiteko agindua emango du.

5. Gobernu Batzordeko edozein kideri eskuordetu ahal izango dizkio bere eginkizunak, azken horren oniritziarekin, baina eskuordetze hori gai jakin baterako izan beharko da.

26. artikulua. - Dekanordetza.

1. Estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera Elkargora batu den elkargokide bat bakarrik izan ahalko da Dekanordetzan.

2. Dekanotzak eskuordetzen dizkion eskudantzia guztiak izango ditu.

3. Dekanotza ordezkatuko du hura ez dagoenean (gaixorik dagoelako edo karguan aritzea eragozten dion beste edozein arrazoi dela medio).

4. Dekanotza hutsik geratzen bada, Dekanordetzak hartuko ditu bere gain haren eginkizunak, harik eta kargua erregelamendu bidez bete arte.

5. Elkargokideek aukeratuko dute Dekanordetza, estatutu hauetako IV. tituluan ezarritako moduan, Dekanotza eta Gobernu Batzordeko beste kide batzuk aukeratzen diren antzera.

27. artikulua. - Elkargoko Idazkaritza eta Diruzaintza.

1. Estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera Elkargora batu diren elkargokideak bakarrik izan ahalko dira Idazkaritzan eta Diruzaintzan.

2. Idazkaritzak eta Diruzaintzak beren karguen berariazko ahalmenak eta betebeharrak izango dituzte.

3. Zehazki, Idazkaritzaren arduradunari eskumen hauek dagozkio:

    a) Elkargoko Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen bilkuretarako aktak idaztea, eta bidezko diren egiaztagiriak eta dokumentuak ematea.
    b) Urteko memoria idaztea.

4. Diruzaintzari eskumen hauek dagozkio:

    a) Elkargoari dagozkion diru kopuruen kobrantzak eta ordainketak egitea.
    b) Elkargoaren kontabilitatea behar bezala eramatea.
    c) Dekanotzarekin batera urteko aurrekontua eta kontuak idaztea.
    d) Elkargoaren gastuen kontuak hartzea.
    e) Urteko aurrekontua betetzen dela zaintzea.

5. Idazkaritzak eta Diruzaintzak beren eskumenak Elkargoko Gerentziaren esku utzi ahal izango dituzte, Elkargoko Gerentziarik badago.

IV. TITULUA - HAUTESKUNDE-ARAUAK

28. artikulua. - Kargu hautagarriak.

1. Elkargoko Dekanotza kargua eta Elkargoko Gobernu Batzordeko gainerako karguak elkargokideen hautaketa zuzen, aske eta isilpekoaren bidez beteko dira.

   Hutsik dauden karguak hautaketa bidez bakarrik bete daitezke.

   Hauteskunde-prozesuan, Elkargoak bere elkargokideei bidaltzen dizkien informazio, deialdi, jakinarazpen, etab. guztiak ohiko postaren, posta elektronikoaren, web-orriaren eta Gobernu Batzordeak finkatzen dituen bestelako bitartekoen bidez egin ahal izango ditu.

2. Hauteskunde-aldi bakoitzean, kargu hautagarriak izango dira berritu behar diren kargu guztiak eta hutsik daudenak.

3. Karguak bi urtean behin berrituko dira, erdibana.

4. Hauteskunde-aldi bakoitzean, berritu egin beharko dira lau urte beteta daramatzaten kargu guztiak, edo aurretiazko hauteskunde bidez bete direnak.

5. Era berean, hauteskunde-aldi bakoitzean epea amaitu baino lehenago uzteagatik hutsik dauden kargu guztiak bete beharko dira, beste kide bat kargu horien eginkizunak bitartean betetzen ari bada ere, Estatutu hauen 41. artikuluan jasotakoaren arabera.

29. artikulua. - Ohiko eta ezohiko hauteskundeak. Hauteskunde-aldia.

1. Bi urtetik behin ohiko hauteskundeak egingo dira, berritu behar diren edo hutsik dauden kargu guztiak betetzeko.

   Horretarako, Elkargoko Gobernu Batzordeak hauteskunde-urteen urriaren 10a baino lehen elkargokide guztiei hauteskunde-aldia ireki dela jakinarazi eta aldi horretan hautatu beharreko karguak adieraziko die.

2. Elkargoko Gobernu Batzordeak, era berean, ezohiko hauteskundeak deitu ahal izango ditu Dekanotza edota Gobernu Batzordeko hiru kargu edo gehiago hutsik geratzen direnean.

3. Ohiko eta ezohiko hauteskundeak Estatutu hauetan xedatzen denaren arabera erregulatuko dira.

   Ezarritako datak ez dira bete beharrekoak ezohiko hauteskundeetan, baina aurreikusitako epeak bai.

30. artikulua. - Hautesleak eta hautesle-errolda.

1. Hauteskunde-aldian, beren eskubideen jardunean diren elkargokide guztiek eskubidea eta betebeharra izango dute hautagai gisa onartu diren eta haien ustez kargua betetzeko egokienak diren pertsonak bozketa bidez hautatzeko.

2. Eskubide hori baliatzeko, nahitaezko baldintza izango da Elkargoaren hauteskunde-erroldan agertzea.

   Hauteskunde-aldia irekitzen den egunetik bertatik, Elkargoaren egoitzan hauteskunde-errolda egongo da elkargokideen eskueran.

   Hautagaiak aurkezteko epearen barruan egin beharko dira errolda horren aurkako erreklamazioak, eta Gobernu Batzordeak hamar eguneko epean ebatzi beharko ditu.

3. Hautesle izango dira Elkargoko hautesle-erroldan dauden elkargokide guztiak.

31. artikulua. - Hautagaiak. Aurkezpena eta aldarrikapena.

1. Estatutu hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten elkargokide guztiak izan daitezke berritu beharreko edo hutsik dauden karguetarako hautagaiak.

2. Hautagaiak Dekanotzarako, Dekanordetzarako, Idazkaritzarako, Diruzaintzarako edo Batzordekidetzarako aurkeztu ahal izango dira, baina ezin izango dira aldi berean kargu batera baino gehiagora aurkeztu organo desberdinetan.

Batzordekidetzetara aurkezteko, beharrezkoa izango da elkargokide izatea. Dekanotzarako, Dekanordetzarako, Idazkaritzarako eta Diruzaintzarako aurkezteko, gainera, beharrezkoa izango da elkargokide izatea estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera.

Hautagaitza aurkeztean, berariaz adieraziko dute Dekanotzara, Dekanordetzara, Idazkaritzara, Diruzaintzara edo Gobernu Batzordeko Elkargokidetza batera aurkezten diren.

3. Estatutu hauetako 7.3.a artikuluaren arabera diren elkargokideen proportzioa, Dekanotza kontuan hartu gabe, Gobernu Batzordeko kideetan % 60koa izango da gutxienez, eta elkargokide guztien botoek balio berbera izango dute.

4. Berritu beharreko karguak betetzen dituzten pertsonak berrautapenera aurkeztu ahal izango dira, baldin eta kargua berritu aurreko aldian aurkeztu ez badute eta Gobernu Batzordeari dimisioa aurkeztu badiote hauteskunde-aldia ireki dela jakinarazi baino lehen.

   Ezohiko hauteskundeetan kargua hartzen dutenei ez zaie zenbatuko hautatuak izan direnetik hurrengo ohiko hauteskundeetara arte igarotako denbora, eta horietara berriro aurkeztu beharko dute.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea hauteskunde-aldia irekitzearekin batera hasiko da eta urriaren 25ean amaituko da Elkargoaren irekiera-ordutegiaren barruan. Egun hori jaieguna balitz, aurreko lanegunean amaituko da epea, Elkargoa irekita dagoen ordutegiaren barruan.

   Larunbata jaieguntzat hartuko da ondorio horietarako.

6. Hautagaiak banaka edo hautagai-zerrenda baten barruan aurkeztu ahal izango dira.

   Banakako hautagaitzak nahiz hautagaitza kolektiboak gutxienez 30 elkargokidek sinatuta aurkeztu beharko dira. Elkargokide bakoitzak hautagaitza bat baino gehiago sinatu ahal izango du.

7. Elkargoko Gobernu Batzordeak Estatutu hauen arabera hautagarriak diren hautagai guztiak onartu eta aldarrikatuko ditu.

   Hautagai-zerrenda batean proposatutako kideren batek ez baditu hautagaitzat aldarrikatzeko baldintzak betetzen, Gobernu Batzordeak baztertutzat deklaratuko du, baina zerrendako gainerako kide hautagarri guztiak onartu eta aldarrikatuko ditu.

32. artikulua. - Bozketaren deialdia eta boto-txartelak.

1. Azaroaren 10a baino lehen, elkargokide guztiei onartu diren hautagaitzen berri emango zaie, aurkeztu diren eta aldarrikatuak izan diren pertsonak adierazita.

   Onartutako hautagaitzak jasotzen dituen jakinarazpen berean, bozketa-deialdia egingo da azaroaren bigarren hamabostaldirako, hauteskunde-mahaia eratuta egongo den ordutegia adierazita.

2. Jakinarazpen horri boto-txartela erantsiko zaio.

3. Boto-txartelean, hala badagokio, Dekanotzarako, Dekanordetzarako, Idazkaritzarako eta Diruzaintzarako onartutako hautagaien zerrenda osoa adieraziko da. Ondoren, bereizirik, batzordekidetzetarako onartutako hautagaien zerrenda osoa jasoko da.

   Zerrendak abizenen ordena alfabetikoaren arabera egingo dira, eta izen-abizenak besterik ez dira adieraziko. Boto-txartelean, argiro bereiziko dira hautagaiak zein zerrendatan sartuta dauden.

4. Hutsik dagoen kargu bakoitzerako hautagai bakarra aurkezten bada, hala jakinaraziko da elkargokideei zuzendutako jakinarazpenean, eta aurkeztutako hautagaiak hautetsitzat aldarrikatuko dira.

5. Aukeratu beharreko karguetarako hautagairik aurkezten ez bada, Gobernu Batzordeak hauteskundeetarako deialdia egitea erabakiko du lehenbailehen, inoiz ere 6 hilabetetik gorako epean. Karguak ez dira utziko hautetsiak karguaz jabetu arte.

6. Gobernu Batzordeak erabakiko du 32. artikulu honen gainean lehen aipatutako prozesurako ohiko posta edo beste bitarteko batzuk erabiliko diren.

33. artikulua. - Hauteskunde-mahaia.

1. Bozketa egiteko, hauteskunde-mahaia eratuko da.

2. Lehendakaritza batek eta bi batzordekidetzak osatuko dute hauteskunde-mahaia. Horiek guztiak Gobernu Batzordeak izendatuko ditu, hautagaiak salbuetsita. Izan ere, horiek ezingo dira egon mahaiaren ez Lehendakaritzan, ezta Batzordekidetzan ere.

3. Hautagaitza bakoitzak ikuskatzaile bat izendatzeko eskubidea izango du. Horrek bozketa eta zenbaketa osorik ikusi ahal izango ditu.

4. Hauteskunde-mahaian parte hartzeko izendatutakoei hamabost egun lehenago jakinarazi beharko zaie.

5. Hauteskunde-mahaiko kide gisa bertaratzea nahitaezkoa izango da, Gobernu Batzordeak bidezkotzat jotzen dituen arrazoiak daudenean salbu.

6. Hauteskunde-mahaiak bozketa osoan zehar eratuta egon beharko du.

   Hauteskunde-mahaia eratutzat hartuko da bi kide daudenean. Horietako batek Lehendakaritzaren eginkizunak beteko ditu.

   Lehendakaritza aldi batez ez badago, horrek mahaikideen artean berori behin-behinekoz ordezkatuko duen kidea izendatuko du.

34. artikulua. - Bozketaren edukia.

1. Dekanotza hautatzeko, kargu horretarako bozkatu nahi den hautagaiaren izena gurutze batekin adieraziko da.

2. Gainerako karguak hautatzeko, kargu horietarako bozkatu nahi diren hautagaien izenak gurutze batekin adieraziko dira.

3. Hautatu beharreko kargu adina izen adierazi ahal izango dira.

35. artikulua. - Bozkatzeko lekua eta era.

1. Hauteskunde-mahaia Elkargoaren egoitzan eratuko da.

2. Bozkatzeko aukera hauek egongo dira:

   a) Pertsonalki, botoa mahaian emanda.
   b) Arauzko boto-txartela kartazal itxian Elkargoaren egoitzara bidalita. Kartazalean boto-emailearen izen-abizenak adieraziko dira, eta atzean sinatuko du, itxierako lerroak zeharkatuta.

   Horrela bidalitako botoek Elkargoaren egoitzan egon beharko dute bozketa amaitzeko adierazitako ordua baino lehen.

3. Pertsonalki bozkatzen dutenek boto-txartela tolestuta entregatuko diote Lehendakaritzako mahaiari. Horrek boto-papera hautestontzian sartuko du berehala, hauteslea identifikatu eta bere izena hauteskunde-zerrendan agertzen dela eta aurretik bozkatu ez duela egiaztatu ondoren.

4. Elkargoaren egoitzan jasotako kartazalak, igorlea hautesle-zerrendan dagoela eta aurretik bozkatu ez duela egiaztatu ondoren, egintza amaitzen denean Lehendakaritzak irekiko ditu, eta boto-txartelak hautestontzian tolestuta sartuko ditu.

5. Gobernu Batzordeak erabakiko du 35. artikulu honen gainean lehen adierazitako prozesua IKTak (osagai telematikoa duten teknologiak) erabilita egin daitekeen.

36. artikulua. - Botoen zenbaketa eta akta.

1. Bozketa amaitu ondoren, mahaiak eman diren botoak zenbatuko ditu.

   Zenbaketa jendaurrean egingo da eta etenaldirik gabe egin beharko da, bozketa amaitu eta berehala.

2. Baliogabetzat joko dira Elkargoak landutako ereduaz bestelakoak diren edo hauteskunde-arau hauetan ezarritakoa betetzen ez duten boto-txarteletan emandako botoak.

Boto baten baliozkotasunari edo baliogabetasunari edo interpretazioari buruzko zalantzak mahaiak ebatziko ditu, edota bozketa bidez ebatziko dira, baldin eta mahaikide guztien adostasunik ez badago.

3. Zenbaketa amaitu ondoren, txartelak suntsitu egingo dira eta emaitzen berri emango da.

   Mahaiburuak eta gainerako mahaikideek sinatuko dute akta, eta hautagaitza guztietako ikuskatzaileek ere sina dezakete.

4. Akta Gobernu Batzordeari helaraziko zaio, hautatutako pertsonak aldarrika ditzan.

37. artikulua. - Hautatutako pertsonak aldarrikatzea.

1. Kargu horretarako boto gehien lortzen dituen hautagaia aldarrikatuko da Dekanotzarako.

   Berdinketa gertatuz gero, Elkargoko Gobernu Batzordeak Elkargoan antzinatasun handiena duen hautagaia aldarrikatuko du. Antzinatasun berekoak izanez gero, zaharrena.

2. Gobernu Batzordeko gainerako karguetarako, boto-kopuru handiena lortzen duten hautagaiak hautatuko dira.

   Berdinketa gertatuz gero, arestian azaldutako irizpideari jarraituko zaio.

38. artikulua. - Jabetza hartzea.

Karguen jabetza urteko laugarren hiruhilekoan egingo den Batzar Nagusian hartuko da.

39. artikulua. - Karguen iraupena.

1. Hurrengo puntuetan xedatzen dena salbuetsita, karguen iraupena lau urtekoa izango da. Hala ere, denboraldi hori zabaldu ahal izango da hautetsi berriek karguen jabetza hartu arte.

2. Lehenago kargua uzteagatik hutsik geratu diren lekuak betetzeko ezohiko hauteskundeetan hautetsitako kideek beren eginkizunak beteko dituzte kargu horiek berritzeko hauteskundeak egin arte.

3. Hauteskundeak edo jabetza hartzeak edozein arrazoirengatik atzeratzen badira, kargu horiek betetzen ari direnek beren karguetan jarraitu beharko dute, hurrengo artikuluaren 1. apartatuan xedatutakoaren arabera kargua utzi arte.

40. artikulua. - Karguak uztea.

1. Hautatu berriek jabetza hartzearekin batera utzi beharko dira karguak.

2. Kargua lehenago uzteko, arrazoi hauetako bat egon beharko da:

   a) Elkargokide izateari uztea.
   b) Dimisioa.
   c) Kargugabetzea.
   d) Gaitasungabetzea.

3. Kargugabetzea Elkargoko Batzar Nagusiak erabaki beharko du, eta arau-hauste astunagatik edo oso astunagatik edo Gobernu Batzordeetara justifikaziorik gabe ez joateagatik diziplina-zigorra dagoenean automatikoki gertatuko da, 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Dimisioa idatzizko alegazioaren bidez aurkeztu beharko da, eta Gobernu Batzordeak ematen den arrazoia bidezkotzat jotzen duenean bakarrik onartuko du.

   Nolanahi ere, dimisiorako arrazoi nahikotzat hartuko da hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztea. Halakoetan, dimisioa aurkeztu dutenek jardunean jarraituko dute hurrengo hautetsiak karguaz jabetu arte. Hala eta guztiz ere, aldi horretan ezin izango dute hauteskunde-prozesuari buruzko erabakietan parte hartu.

5. Estatutu hauen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera elkargokide izateari uzteak kargutik automatikoki kentzea ekarriko du berekin.

41. artikulua. - Hutsik dauden karguak behin-behinekoz betetzea.

1. Estatutu hauen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, hutsik dauden karguak hautespen bidez baino ezingo dira bete.

2. Hutsik dagoen kargua Dekanotzakoa denean, bere eginkizunak Dekanordetzak hartuko ditu behin-behinekoz.

3. Gobernu Batzordean hutsik dauden gainerako karguen eginkizunak Batzordeak izendatzen dituen batzordekideek beteko dituzte behin-behinekoz. Gainera, kide batek kargu bat baino gehiago bete ahal izango du.

42. artikulua. - Hauteskunde-arauak osatzea.

1. Gobernu Batzordeak, hauteskunde-aldi bakoitzean, beharrezkotzat jotzen dituen prozedura-arauak osatu eta garatu ahal izango ditu.

2. Arau horiek, nolanahi ere, aurreko artikuluetan agindutakoa eta horien xedea kontuan hartuta landuko dira.

3. Era horretan onartzen diren arauak elkargokide guztiei bidaliko zaizkie hauteskunde-aldia irekitzen denean.

4. Aurrerapen elektronikoek ahalbidetzen duten neurrian, Gobernu Batzordeak botoa emateko beste bide batzuk erregulatuko dituzten arauak garatuko ditu, botoaren izaera pertsonala, zuzenekoa eta isilpekoa bermatuta.

V. TITULUA - FUNTZIONAMENDUARI ETA ERABAKIAK HARTZEARI BURUZKO ARAUAK

43. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren bilkurak.

1. Elkargoaren Batzar Nagusiak gutxienez bi bilkura egingo ditu urtero; bilkura bat urteko laugarren hiruhilekoan, aurrekontua onartzeko eta, hala dagokionean, karguak berritzeko, eta beste bilkura urteko bigarren hiruhilekoan, Elkargoaren kontuak onartzeko eta haren alderdi guztiei buruzko txosten orokorra aurkezteko.

   Hauteskundeak egiten diren urtean, laugarren hiruhilekoan egin beharreko Ohiko Batzar Nagusirako data finkatu beharko da; horrela, hautetsi berriak Batzar Nagusi horretan karguaz jabetu ahal izateko.

2. Batzar Nagusia ezohiko izaeraz ere bilduko da, Gobernu Batzordeak bere kabuz edo boto-eskubidea duten erroldako elkargokideen % 20k edo gehiagok, edo Industria Ingeniaritzaren eskumen guztiak dituzten elkargokideen % 10k edo gehiagok idatziz eskatuz gero. Eskaera hori Elkargoko Gobernu Batzordeari aurkeztu beharko diote.

Eskaera jaso eta hurrengo hilabetea amaitu aurretik egin beharko da Batzar Nagusia.

3. Saio bakoitzean aztertu beharreko puntuetan, gutxienez, aurreko ekitaldiko urteko kontuen eta aurrekontuaren onarpena jasoko dira.

44. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusirako deialdia.

1. Elkargoaren Gobernu Organoak egingo du Elkargoaren Batzar Nagusiaren deialdia, bilerarako finkatutako eguna baino 15 egun natural lehenago gutxienez bidalitako jakinarazpenaren bidez. Horretarako, bide telematikoak edo Gobernu Batzordeak zehazten dituen beste batzuk erabiliko dira, elkargokide guztiei sarbidea bermatuz.

   Jakinarazpen horretan gai-zerrenda agertuko da. Bertan, aztertuko beharreko gaiak bilduko dira.

2. Premiazko kasuetan (premiazkotasuna Batzar Nagusian justifikatu beharko da), Dekanotzak Batzar Nagusirako deialdia gutxienez hiru eguneko aurrerapenarekin egin ahal izango du. Nolanahi ere, gai-zerrenda igorri beharko du.

45. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda.

1. Batzar Nagusiaren gai-zerrendan, erabakiko diren gai guztiak adieraziko dira, aztertu beharreko gaien edukia eta hedadura argi eta garbi azalduta.

2. Elkargoko Gobernu Batzordeak izango du Elkargoko Batzar Nagusiaren gai-zerrenda finkatzeko eskumena.

3. Urteko laugarren hiruhilekoan egin beharreko Ohiko Batzar Nagusiaren gai-zerrendan, gutxienez honako gai hauek bildu behar dira:

   - Urteko aurrekontua aurkeztu, eztabaidatu eta onartzea.
   - Karguak berritzea, hala dagokionean.
   - Galde-eskeak.

   Urteko bigarren hiruhilekoan egin beharreko Ohiko Batzar Nagusiaren gai-zerrendan, gutxienez honako gai hauek bildu behar dira:

   - Aurreko urteko kontuak aurkeztu, eztabaidatu eta onartzea.
   - Aurreko urteko memoria.
   - Elkargoaren funtzionamenduari buruzko txosten orokorra.
   - Galde-eskeak.

4. Gainera, gai-zerrendan barne hartuko dira:

   a) Gobernu Batzordeak zerrendan sartzea erabakitako gaiak.

   b) Gutxienez 25 elkargokidek Batzar Nagusiari aztertzeko eskatzen dizkioten gaiak.

Elkargokideek proposatzen dituzten gaiak Gobernu Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio Batzar Nagusia egin baino gutxienez hilabete lehenago.

46. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiaren quoruma.

1. Bilkurak lehen edo bigarren deialdian egingo dira.

2. Lehenengo deialdian egiteko, beharrezkoa izango da boto-eskubidea duen elkargo-erroldaren gehiengoa egotea.

3. Bilkurak bigarren deialdian egingo dira, lehenengo deialdia baino ordu erdi geroago, bertaratuen kopurua edozein dela ere.

4. Quorumaren ondorioetarako, ez dira zenbatuko ordezkatutako elkargokideak.

47. artikulua. - Elkargoko Batzar Nagusiko Lehendakaritza eta Idazkaritza.

1. Batzar Nagusiko buru Dekanotza izango da, edo, bestela, Dekanordetza.

   Lehendakaritzak bilkura irekitzat eta amaitutzat joko du, eztabaidak zuzenduko ditu –ahozko esku-hartzeak finkatuko ditu, ordena eta eraginkortasun handienarekin egin daitezen– eta bozketak erregulatuko ditu, 54. eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Idazkaritzan Gobernu Batzordeko idazkariak jardungo du –bileraren akta egingo du–, edo, hura ez badago, Gobernu Batzordeko edo Elkargoko kide batek.

48. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen bilkurak.

1. Gobernu Batzordeak gutxienez hiru hilabetetik behin bilkura egingo du.

2. Dekanotzak bere ekimenez erabakitzen duenean edo haren kideen %20k gutxienez idatziz eskatzen dutenean ere bilduko da.

   Gobernu Batzordeak eskaera jaso eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen bildu beharko du.

49. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordea biltzeko deialdia.

1. Idazkaritzak batzordekideei deituko die bilkura egin baino gutxienez bost egun lehenago. Deialdi horretan, aztertu beharreko gaien zerrenda bidaliko die.

2. Presazko kasuetan, deialdia egiteko epea murriztu ahal izango da Dekanotzak hala erabakitzen badu; kasu horretan, edozein bide erabiliz egin ahal izango da.

   Hurrengo bilkuran, Dekanotzak premiaren arrazoiak justifikatu beharko ditu Gobernu Batzordearen aurrean, eta horren ustez erabaki hori justifikatuta ez badago, han hartutako erabakiak baliogabetu ahal izango dira.

50. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen gai-zerrenda.

1. Gobernu Batzordearen gai-zerrendan, ebatzi beharreko gai guztiak adieraziko dira, eta horien edukia eta hedadura argi eta garbi azalduko dira.

2. Dekanotzak izango du Elkargoko Gobernu Batzordearen gai-zerrenda finkatzeko erantzunkizuna.

3. Gai-zerrendan barne hartuko dira:

   a) Dekanotzak zerrendan sartzeko erabakitako gaiak.

   b) Gobernu Batzordeko kideek edo gutxienez 15 elkargokidek eskatzen dituzten gaiak.

51. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen quoruma.

1. Bilkurak lehen edo bigarren deialdian egingo dira.

2. Lehenengo deialdian egiteko, beharrezkoa izango da Batzordeko izatezko kide gehienak bertan egotea.

3. Bilerak bigarren deialdian egingo dira, lehenengo deialdirako adierazitakoa baino ordu erdi geroago, parte-hartzaileen kopurua edozein dela ere, betiere gutxienez lau badira, horietako bat Dekanotzak edo Dekanordetzak.

52. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordeko Lehendakaritza eta Idazkaritza.

1. Gobernu Batzordeko buru Dekanotza izango da, edo, bestela, Dekanordetza.

   Lehendakaritzak bilkura irekitzat eta amaitutzat joko du, eztabaidak zuzenduko ditu –ahozko esku-hartzeak finkatuko ditu, ordena eta eraginkortasunarekin egin daitezen– eta bozketak erregulatuko ditu, 54. eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Idazkaritzan Gobernu Batzordeko idazkariak jardungo du –bileraren akta egingo du–, edo, hura ez badago, Gobernu Batzordeko edo Elkargoko kide batek.

53. artikulua. - Elkargoko Gobernu Batzordearen bileretara bertaratzea.

1. Gobernu batzordeetara joatea nahitaezkoa da, eta Gobernu batzordearen iritziz justifikatuta dauden arrazoiengatik bakarrik desenkusatu ahal izango dira kideak.

2. Hamabi hilabetean ondoz ondoko hiru bileratara edo txandakako bostera behar bezala justifikatu gabe ez joateak kargua automatikoki uztea ekarriko du, dagozkion diziplina-erantzukizunei kalterik egin gabe.

   Premiaz deitutako batzarren kasuan, ez da neurri hori aplikatuko.

   Kargugabetzea eraginkorra izango da Gobernu Batzordeak, eraginpeko karguarik gabe, isilpean kargugabetze horren alde bozkatzen duenean eta inguruabar hori idatziz jakinarazten duenean.

54. artikulua. - Batzar Nagusiaren eta Gobernu Batzordearen funtzionamendu orokorra.

1. Ezin izango da zerrendan ez dagoen edozein gairi buruzko erabakirik hartu, salbu eta, Organoa lehen deialdian bildurik, eta berori baliozkotasunez eratuta dagoelarik, bertaratuek aho batez erabakitzen badute gairen bat zerrendan premiaz sartzea erabakitzen badute.

2. Zerrendan agertzen den gai bakoitzak hiru etapa izango ditu: azalpena, eztabaida eta erabakia hartzea, hurrengo paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

3. Proposamena egin dutenek aukeratzen duten kideak azalduko du gaia.

4. Batzarreko Lehendakaritzak moderatuko du eztabaida. Horrek hitza emango die eskatzen duten guztiei eta esku-hartzeen kopurua edo denbora mugatuko du.

5. Erabakia bozketa bidez edo bozketarik gabe hartuko da. Bozketa saihesteko, beharrezkoa izango da bertaratutako guztien adostasuna nabarmena izatea gaia azaldu ondoren. Batzarrean parte hartzen duen edonork eska dezake bozketa egitea.

   Bozketa eginez gero, Lehendakaritzak zer bozkatzen den eta nola bozkatu behar den argi eta garbi adieraziko du.

   Bozketa isilpekoa izango da, baldin eta horrek eragina badu elkargokideren baten edo gehiagoren ohorean edo bertaratuetako baten batek hala eskatzen badu.

6. Deialdiak, informazioak, aktak, etab. posta elektronikoaren, web-orriaren eta Gobernu Batzordeak egoki jotzen dituen bestelako bitartekoen bidez igorri ahal izango dira.

   Gobernu Batzordeak erabakiko du Gobernu Batzordea bera eta Batzar Orokorra IKTak (osagai telematikoa duten teknologiak) erabiliz egin daitezkeen.

55. artikulua. - Bozketak.

1. Bozketak mota hauetakoak izango dira:

   a) Arruntak: zeinu konbentzionalen bitartez –hala nola eskua jasota edo zutik jarrita– modu kolektiboan egiaztatzen direnak.

b) Izendunak: idazkariak Organoko kideen zerrenda irakurriz egiaztatzen direnak; pertsona bakoitzak, bere izena aipatzen denean, bere botoa zein den adierazten du edo abstenitu egiten da, bozkatzeko baldintzen arabera.

c) Isilpekoak: hautestontzi edo poltsa batean sartzen diren boto-txartelen bidez egiten direnak.

2. Osagai telematikoa duten batzordeen kasuan, Gobernu Batzordeak beste bozketa-bide batzuk arautuko dituzten arauak garatuko ditu, boto horren izaera pertsonala, zuzena eta sekretua bermatuz.

3. Bozketa hasi ondoren, ezin izango da inolako arrazoirengatik eten.

56. artikulua. - Gehiengoak.

1. Bilkura lehen nahiz bigarren deialdian eginda ere, Legeak edo Estatutu hauek boto kopuru handiagoa eskatzen ez badute, emandako botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira erabakiak.

2. Berdinketarik balego, Lehendakaritzak bozketa errepikatu, bere kalitate-botoarekin erabaki edo beste batzar baten deialdia egin ahal izango du.

3. Diziplinari loturiko gaietan, erabakiak Batzordearen egitatezko kideen gehiengo absolutuaz hartuko dira, Estatutu hauen 74. artikuluak xedatutakoaren arabera.

57. artikulua. - Erabakiak hartzea.

1. Bozketa, balego, amaitu ondoren, Idazkaritzak eman diren botoak zenbatuko ditu eta emaitza argitaratuko du. Emaitza zein den, Lehendakaritzak hartu den erabakia aldarrikatuko du.

2. Guztiak ados egonez gero, lehendakariak horixe adieraziko du eta hartutako erabakia aldarrikatuko du.

58. artikulua. - Aktak eta ziurtapenak.

1. Idazkaritzak Elkargoko Organoaren bilkura bakoitzaren akta egingo du, Lehendakaritzaren oniritziaz. Bertan, gertatutakoaren laburpena egingo da, eta hartutako erabakiak hitzez hitz transkribatuko dira.

2. Hartutako erabakiak aktan jasotzea horien frogabidea izango da.

3. Idazkaritzak erabakien ziurtapenak emango ditu, Lehendakaritzaren oniritziaz.

VI. TITULUA - ERREKURRITU DAITEZKEEN EGINTZAK ETA ERREKURTSO-ARAUBIDEA

59. artikulua. - Baliozkotasuna eta betearaztasuna.

1. Elkargoko organoek beren eskumenak erabiliz gauzatutako egintzak eta hartutako erabakiak baliozkoak eta bete beharrekoak izango dira gauzatu edo hartzen diren unetik, baldin eta goragoko organoen onarpena edo baimena behar ez badute edota, indarrean dauden lege-aginduek xedatutakoaren arabera, etenda ez badaude.

2. Egintzen eta erabakien baliozkotasuna eta betearazgarritasuna haren aurka jar daitezkeen legezko errekurtsoen kalterik gabe ulertuko da.

60. artikulua. - Ofiziozko berrikuspena.

1. Elkargoko organoek edozein unetan erreboka ditzakete kargak ezartzen dituzten edo inoren kalterako diren beren egintzak, betiere errebokazio hori ez bada legeek ezarritakoaren aurkakoa, edo berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez bada

2. Halaber, Elkargoko organoek edonoiz zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetan egon daitezkeen akats material, egitatezko edo aritmetikoak, beren kabuz edo interesdunek eskatuta.

3. Interesdunentzat aldekoak diren egintza edo erabaki baliogabeen edo baliogabetu daitezkeenen berrikuspenean, indarrean dagoen legerian jasotakora egokitu beharko da.

61. artikulua. - Errekurtsoak.

1. Elkargoko organoen egintza eta erabakien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa eta aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dituzte.

2. Legeek gora jotzeko errekurtsoa eta berraztertzeko errekurtsoa aurkaratzeko prozedura alternatiboak ezarri ahal izango dituzte, baina, azken kasu horretan, aukerakoa izango da interesdunarentzat.

62. artikulua. - Gora jotzeko errekurtsoa.

1. Elkargoko organoen egintza eta erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke horiek eman zituztenek baino maila hierarkiko altuagoa duen organoaren aurrean.

2. Gora jotzeko errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, egintza espresa bada, eta espresa ez bada, berariazko araudia kontuan izanik, isiltasun administratiboaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.

3. Errekurtsoa, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren aurrean edo ebazteko eskumena duen organoaren aurrean aurkez daiteke.

4. Epe horiek igarota errekurtsorik jarri ez bada, ebazpena erabat irmoa izango da ondorio guztietarako.

5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igarota ebazpenik eman ez bada, errekurtsoa ezetsitzat hartu ahal izango da.

63. artikulua. - Berraztertzeko errekurtsoa.

1. Administrazio-bideari amaiera ematen dioten egintza eta erabakien aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote haiek eman dituen organo berari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren aurrean aurkaratu ahal izango dira.

2. Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, aurkeztu den berraztertzeko errekurtsoa espresuki ebatzi arte edo haren ustezko ezespena gertatu arte.

3. Berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko epea hilabetekoa izango da, egintza espresa baldin bada, eta, espresa ez bada, hiru hilabetekoa, eta, eskatzailearentzako eta litezkeen bestelako pertsona interesdunentzako, presuntziozko egintza gertatu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko da, berariazko araudiaren arabera.

4. Epe horiek igarota, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jarri ahal izango da, berrikusteko ezohiko errekurtsoa jartzearen kaltetan izan gabe, hala badagokio.

5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da.

6. Berraztertzeko errekurtso baten ebazpenaren aurka ezin izango da berriro errekurtso hori jarri.

64. artikulua. - Jurisdikzio-errekurtsoak.

Errekurtso korporatiboak agortuz gero, administrazio-zuzenbidearen mende dauden eta Elkargoko organoetatik datozen egintzek eta erabakiek bide administratiboa amaituko dute, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera (administrazioarekiko auzien jurisdikzioa baino lehen dago bide administratiboa).

VII. TITULUA - ARAUBIDE EKONOMIKOA

65. artikulua. - Elkargoaren ondarea.

1. Elkargoaren ondasun eta eskubide guztiek osatzen dute ondarea.

2. Elkargoaren baliabide ekonomikoak administratu eta erabiltzeko ahalmenak Estatutuetan eta indarrean dagoen legeria aplikagarrian aurreikusitako xedapenen arabera gauzatuko dira.

66. artikulua. - Elkargoaren baliabide ekonomikoak.

1. Elkargoaren ohiko baliabideak hauek dira:

   a) Elkargokideek aldian-aldian ordaindu beharreko kuotak.

   b) Lan profesionalekin lotutako oniritzien, legeztatzeen, erregistroen, ziurtapenen, proiektuen gaineko egiaztapenen, dokumentuen eta sinaduren ondoriozko kuotak.

   c) Elkargoaren jabetzeko ondasun eta eskubideetatik datozen diru-sarrerak, hala nola gainbalioak eta etekin finantzarioak, komisioak, lokalen, aretoen eta neurgailuen alokairuak, besteak beste.

   d) Elkargoak kudeatzen dituen argitalpen eta zerbitzuengatik lortzen dituen mozkinak eta eskubideak.

   e) Prestakuntza-ikastaroak antolatzearen, dokumentazioa saltzearen eta gizarte eta kulturako jarduera eta gertakari profesionalak antolatzearen ondoriozkoak.

   f) Aurrekoen antzeko beste batzuk, Elkargoaren jarduerekin bat datozenak.

2. Elkargoaren ezohiko baliabideak hauek dira:

   a) Estatuak, erakunde publikoek edo pertsona pribatuek Elkargoari ematen dizkioten dirulaguntzak, dohaintzak, etab.

   b) Batzar Nagusian hitzartu daitezkeen ezohiko kuotak.

   c) Bere ondare higigarria edo higiezina edo bere eskubideak besterentzetik lortutako emaitza.

   d) Elkargoak jasotako beste edozein zenbateko, aurreko ataletan berariaz jaso ez bada.

67. artikulua. - Elkargoaren aurrekontua.

1. Elkargoak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako aurrekontu bana egingo du. Aurrekontuan, aldi horretarako aurreikusten diren sarrerak eta gastuak bilduko dira.

   Ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da.

2. Gobernu Batzordeak behin-behinekoz onartuko du aurrekontua. Ondoren, Batzar Nagusiak onartu beharko du, urteko laugarren hiruhilekoan egin beharreko ohiko bilkuran.

3. Edozein arrazoirengatik ekitaldi ekonomikoa hasten denean aurrekontua behin betiko onartuta ez badago, aurreko urteko aurrekontuak eraenduko du behin-behinekoz.

68. artikulua. - Zorrak eta ordainketak.

1. Dekanotzak eta Gerentziak Elkargoaren aurrekontuaren kontura zorrak eta ordainketak egin ahal izango dituzte, Gobernu Batzordeak ezarritako muga gainditzen ez den bitartean.

2. Ezarritako muga gainditzen duten aurrekontuaren konturako zorrak edo ordainketak egiteko, Gobernu Batzordeak dagokion gastu-proposamena onartu beharko du.

69. artikulua. - Informazio ekonomikoa.

1. Elkargoak kudeaketa ekonomikoaren kontabilitatea liburu egoki eta eguneratuen bitartez eramango du, edonoiz aurrekontuko eragiketak justifikatu ahal izateko, eta eman beharreko kontu orokorrak horietatik kenduko dira.

2. Elkargokideek une oro izango dute Elkargoaren ekonomiari buruzko informazioa eskatzeko eskubidea, betiere eskaera bakoitza zehatza bada, baina kontabilitatea eta liburuak deialdia egin eta Ohiko Batzar Orokorra bildu bitartean baino ezin izango dituzte aztertu.

70. artikulua. - Urteko kontuak ikuskatu eta onartzea.

1. Elkargoaren kontuak Batzar Nagusian urtero onartuko dira, artikulu honetan ezarritako prozedurari jarraituz:

2. Elkargoko Diruzaintzak urteko lehen hiruhilekoan dokumentu hauek idatziko ditu:

   a) Memoria.
   b) Aurreko urteko galdu-irabazien kontua.
   c) Urte horren abenduaren 31ko egoera-balantzea.

3. Gobernu Batzordeak bere kideen artean hiru izendatuko ditu kontuen barne-ikuskapena egiteko eta dagokion txostena emateko. Era berean, zeregin hori kanpoko erakunde behar bezala kualifikatu eta independente baten esku utzi ahal izango du.

4. Elkargoaren kontuak behin betiko onartuko dira Batzar Nagusiak urteko bigarren hiruhilekoan egiten duen ohiko bileran eztabaidatu ondoren.

VIII. TITULUA - DIZIPLINA-ARAUBIDEA

71. artikulua. - Eskumena.

1. Elkargoak bere gain hartzen du elkargokideek Elkargoaren eta lanbidearen esparruko eginbideak eta betebeharrak betetzen dituztela zaintzeko erantzukizuna, baita lanbidearen ospea eta lankideen arteko errespetua zaintzekoa ere.

2. Erantzukizun hori betetzeko, Elkargoak diziplina-ahalmena izango du eta elkargokideen arau-hausteak zigortuko ditu Legeak ezarritakoaren arabera.

3. Elkargoko Gobernu Batzordeko kideekiko diziplina-ahalmena Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ingeniaritzaren Kontseiluari egokituko zaio esklusiboki, artikulu honen aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera.

72. artikulua. - Arau-hausteak.

Arau-hausteen sailkapena, definizioa eta preskripzioa, eta bakoitzari dagozkion zigorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legean adierazten dira.

73. artikulua. - Zigor-prozedura.

1. Zigor-prozedura bideratu ondoren jarriko dira zigor guztiak, interesdunari entzun ondoren.

2. Espedientea Elkargoko Gobernu Batzordearen erabakiz hasiko da.

3. Gobernu Batzordeak, prozedura hastea erabakitzen duenean, bere kideen artean kausa bideratu behar duen pertsona izendatuko du, eta Idazkaritzan Elkargoko idazkariak jardungo du, edo Gobernu Batzordeak izendatzen duen pertsonak.

   Interesdunek, 8 eguneko epearen barruan, indarrean dagoen legerian ezarritako arrazoiengatik bideratzailea errekusatu ahal izango dute.

4. Kausa bideratzen duenak, gertakariak argitzeko probak eta jarduketak egin ondoren, bidezko bada kargu-orria aurkeztuko du, eta, bertan, arau-hauste zigorgarria izan daitezkeen egotzitako egitateak azalduko ditu.

5. Interesdunei kargu-orriaren berri emango zaie, eta 15 eguneko epea emango zaie hari erantzuteko. Erruztatuak epe horren barruan bere defentsarako bidezkotzat jotzen dituen proba guztiak aurkeztu ahal izango ditu.

6. Kargu-orria erantzun edo hori egiteko epea igaro ondoren, bideratzaileak ebazpen-proposamena egingo du hurrengo 15 eguneko epearen barruan.

7. Ebazpen-proposamena Gobernu Batzordera bidaliko da, eta horrek, bideratzailea bertan egon gabe, bidezko den ebazpena emango du.

8. Prozeduraren arloan araututa ez dagoen guztian, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko 1/2023 Legean, martxoaren 16koa, ezarritakoa beteko da.

9. Instruktoreak inpartzialtasuna bermatu beharko du uneoro, eta edozein errefusatze administrazio-prozedurari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitakoaren arabera ebatzi beharko da.

74. artikulua. - Prozedura ebaztea.

1. Gobernu Batzordeak diziplina-gaietan jardutean, egitatezko kide guztiak bertaratu beharko dira, Batzordeak onartzen duen eragozpenen bat dagoenean edo kide horiek errekusagarriak direnean salbu. Ezinbesteko betebehar hori betetzen ez duena Elkargoko zuzendaritza-organotik kanpo geratuko da.

2. Erabakiak, kasu guztietan, egitatezko batzordekide guztien gehiengo osoz hartuko dira.

3. Bozketa isilpekoa izango da.

4. Gobernu Batzordearen ebazpena aurkaratu ahal izango da aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera, 18/1997 Legean eta 39/2015 Legean ezarritako administrazio-errekurtsoak barne.

IX. TITULUA - ONIRITZIA

75. artikulua. - Oniritziaren edukia.

1. Industria-ingeniarien edo Industria-ingeniaritzaren elkargoetako kideek, profesional eskudunek eta/edo haien bezeroek elkargoei eskatu ahal izango diete lanen oniritzia ematea, Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean, abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritako kasuetan.
2. Elkargoaren oniritzia arautzen dute 18/1997 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoak, 1000/2010 Errege Dekretuak, abuztuaren 5ekoak, Elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzkoak, horiek garatzen dituen araudiak eta Estatutu hauek.
3. Oniritziaren helburua da lana egin duena nor den eta zer gaikuntza duen ziurtatzea, eta lanaren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela bermatzea, dena delako lanari aplikatzekoa zaion araudiaren arabera.
4. Bestalde, oniritzian ez dira jasota egongo ez zerbitzu-sariak, ezta kontratuaren gainerako baldintzak ere, horiek aldeek ados jarrita finkatu behar baitituzte. Halaber, oniritzian ez da jasoko lan profesionalaren elementu fakultatiboen kontrol teknikoa.
5. Oniritziak argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta Elkargoak hartzen duen erantzukizunari dagokienez.
6. Elkargoak dagokion ziurtagiria emango du, eta aplikatu beharreko araudiaren arabera egingo du erregistroa.

76. artikulua. - Oniritzia lortzeko betebeharra.

1. Elkargoaren oniritzia lortzea nahitaezkoa da indarrean dagoen legeriak zehazten dituen lanetarako soilik. Lan profesional bat oniritziaren mende dagoenean, hura, hala badagokio, administrazio publiko eskudunaren aurrean aurkeztu aurretik lortu beharko da.
2. Proiektu partzialak dituzten lanetarako oniritziaren kasuan, nahikoa izango da oniritzia lan profesionalaren gai nagusian eskumena duen elkargoak ematea. Lana sinatzen duen profesionalak gai profesionalean eskumena duen elkargo profesionalera jo ahalko du. Gaian elkargo profesional eskudun bat baino gehiago dagoenean, horietako edozeinetan lortu ahal izango da oniritzia. Era berean, Estatuaz beheragoko esparruko elkargo profesional bat baino gehiago dagoenean, horietako edozeinetan lortu ahal izango da oniritzia.
3. Nahitaezko oniritzia emateaz gain, Elkargoak oniritzia eman ahal izango die bere eskumen-esparruan dauden lan profesionalei, baldin eta bezeroek –administrazio publikoak barne, halakotzat jarduten dutenean– berariaz eskatzen badiote, edo indarrean dagoen araudiak hala ezartzen duenean.

77. artikulua. - Prozedura eta ebazpena.

1. Gobernu Batzordeak izango du elkargoaren oniritziak emateko edo ukatzeko eskumena.

2. Gobernu Batzordeak Elkargoko beste organo bati eskuordetu ahal izango dio eginkizun hori. Hala ere, ondorio guztietarako ulertuko da organo eskuordetza-emaileak hartu dituela erabakiak.

3. Oniritzia ematea egintza arautua izango da.

4. Eusko Jaurlaritzak Elkargoari Industria Ingeniaritzaren lanbidea antolatzeko eskatzen edo eskuordetzen dizkion eginkizun eta jarduerez gainera, organo jarduleak egiaztatuko ditu:

   a) Sinatzailearen nortasuna eta kolegiazioa.
   b) Dokumentazio hori sinatzeko legezko gaikuntza.
   c) Dokumentazioaren zuzentasun formala.
   d) Dokumentazioak legezko arau-hausterik izan dezakeen.

5. Oniritzia ukatzearen aurka errekurtsoa jarri ahal izango da Gobernu Batzordearen aurrean.

78. artikulua. - Oniritziaren eskubideak.

Elkargoak dagokion kopurua likidatuko du indarrean dauden xedapenen arabera. Kostua arrazoizkoa izango da, ez, ordea, gehiegizkoa edo baztertzailea. Elkargoak oniritziaren kostua argitaratu behar dute, eta hura telematikoki izapidetu ahal izango da.

79. artikulua. - Dokumentuak eta beste izapide batzuk erregistratzea.

1. Elkargokideek edo, elkargokideak ez izan arren, industria-ingeniaritzaren arloan eskumenak dituzten beste profesional batzuek eskatuz gero, Elkargoak arlo horretako lan profesionalak erregistratu eta zainduko ditu, elkargokide edo profesional horiek entregatzen badizkiote. Lanen edukia identifikatuko du eta, lana gordetzeko eskaera egin duenak eskatzen badu, Elkargoak ziurtagiri bat emango dio dokumentua entregatu duela adierazteko.

   Zerbitzu horren baldintza bereziak jasota daude barne-araudian.

2. Lanbidea antolatzeko xedea betetze aldera, Elkargoak eskaini ahal izango ditu lanbidean interesa duten egitateak eta egintzak izapidetzeko, egiaztatzeko edo ziurtatzeko beste zerbitzu batzuk. Zerbitzu horien irismena dagokien araudian eta/edo prozeduran adieraziko da, eta borondatezkoak izango dira.

80. artikulua. - Administrazio publikoei zuzendutako dokumentu-kontrola.

1. Administrazio publikoek duten ahalmenaren arabera, euren antolaketa-autonomiaren jardunean eta dagozkien eskumenen esparruan, ahalmena izango dute beren eginkizunak hobeto betetzeko helburuarekin kasuak kasu erabakiak hartzeko eta elkargo profesionalekin hitzarmenak ezartzeko edo, lan profesionalekin lotuta, beharrezkotzat jotzen dituzten zerbitzuak kontratatzeko, egiaztapen dokumentala edo teknikoa egitea edota aplikatzekoa den araudia betetzen ote den ikustea helburu dela.
2. Era berean, elkargoak edozein enpresa edo erakunderekin kontratatu ahal izango ditu azterketa, egiaztapen edo ziurtapen osagarriak, lanen alderdi teknikoei buruzkoak. Edonola ere, elkargokideek proiektuak egiteko duten askatasuna eta legeetan ezarritakoa beteko dira.

81. artikulua. - Sozietate profesionalei zuzendutako oniritzia.

Elkargoak sozietate profesional baten aldeko oniritzia ere eman ahal du, sozietatea behar bezala inskribatuta badago sozietate profesionalen erregistroan.

82. artikulua. - Sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia.

Elkargoko Gobernu Batzordeari dagokio sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia eta horren aldaketak onartzea.

X. TITULUA - ELKARGOKO PERTSONALA ETA BITARTEKO INSTRUMENTALAK

83. artikulua. - Bitarteko instrumentalak.

1. Elkargoak bere jarduera egiteko behar dituen bitarteko pertsonalak eta materialak edukiko ditu, elkargokideek aurkeztutako kexei edo erreklamazioei arreta eraginkorra emango zaiela bermatzeko. Era berean, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta emateko zerbitzu bat izango du. Zerbitzu horrek izapidetu eta ebatzi beharko ditu aurkezten dizkioten kexa eta erreklamazio guztiak elkargokideen elkargo-jarduerarekin edo jarduera profesionalarekin lotuta. Zerbitzu horren erregulazioan, kexak eta erreklamazioak bide elektronikoaren bitartez eta urrutitik aurkezteko aukera aurreikusi beharko da.
2. Elkargoak web-orri bat izango du, eta web-orri horren bidez, eta zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legean aurreikusitako leihatila bakarra erabiliz, profesionalek aukera izango dute Elkargoko kide egiteko, elkargokide gisa jarduteko eta Elkargoan baja emateko beharrezko izapideak egiteko, gune bakarretik, bide elektronikoaren bitartez eta urrutitik, aipatutako 17/2009 Legearen 18.2 artikuluan jasotako baldintzetan.

84. artikulua. - Enplegatuak eta aholkulariak.

1. Elkargoaren zerbitzuen funtzionamendu egokia ziurtatzeko, Gobernu Batzordeak teknikariak, administrariak edo mendeko langileak kontratatu ahal izango ditu, dauden beharrizanen arabera.

2. Langile horien lan-baldintzak Gobernu Batzordeak finkatuko ditu, dagozkien lan-arauak kontuan izanik.

3. Elkargoaren funtzionamendu egokirako, Elkargoak aholkularitza juridiko, fiskal, ekonomiko edo egoki deritzon beste edozein gaitako espezialistekin hitzarmenak egin ahal izango ditu.

85. artikulua. - Gerentzia.

1. Elkargoak gerentzia bat izendatu ahal izango du, Elkargoko gaiak kudeatu eta administratzeaz eta zuzendaritza-organoek hartutako erabakiak betearazteaz arduratzeko.

2. Gerentziaren postuan diharduena Elkargoaren plantillako langile guztien zuzeneko buru izango da, eta enplegatuen lana antolatu eta kontrolatuko du, zerbitzuen eraginkortasunik handiena lortzeko.

3. Gerentziaren gainerako eskumenak eta betebeharrak kontratu bidez ezarriko dira, kasuak kasu, izendatutako pertsonarekin.

4. Gerentzia hautatzeko, Elkargoko Gobernu Batzordeak lehiaketa-deialdia egingo du. Deialdian, lehiaketaren oinarriak finkatuko dira.

   Izendapena Gobernu Batzordeak berretsi beharko du.

5. Elkargokideek lehentasuna izango dute Gerentzia lanposturako lehiaketan. Hala ere, izendatu ondoren, lanpostu hori betetzen duen pertsonak ezin izango du oniritziko lanik aurkeztu jardunean dagoen bitartean, interes-gatazkak saihesteko.

6. Gerentziaren postuak arduraldi esklusiboa eskatzen du, eta horretan diharduenak ezin izango du ordainpeko beste lanik egin, Gobernu Batzordearen berariazko onespenaz ez bada.

XI. TITULUA - SOZIETATE PROFESIONALEN ARAUBIDEA

86. artikulua. - Aplikatzekoa den berariazko araudia.

2. artikuluan adierazitako araudiak ez ezik, Elkargoa arautzen du martxoaren 15eko 2/2007 Legeak, Sozietate Profesionalei buruzkoak.

87. artikulua. - Administrazioarekiko harremanak.

Elkargoak harremana du Merkataritza Erregistroarekin eta gainerako agintaritza eskudunekin, elkargoaren lurralde-eremuan sozietate profesionalak eratu, ezarri eta garatzeari dagokionez, eta sozietate horiek 2/2007 Legean eta indarrean dauden gainerako araudietan ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen du.

88. artikulua. - Sozietate profesionalak Elkargoan sartzea.

1. Elkargoak bere Sozietate Profesionalen Erregistroan inskribatuta dauden eta 2/2007 Legean eta estatutu hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten sozietate profesionalak ere onartu eta erregistratuko ditu.
2. Sozietate-formaren pean lanbidean aritu ahal izateko, beharrezkoa izango da Sozietate Profesionalei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legean eta sozietate profesionalak hartu duen sozietate-formari dagokion araudian xedatutakoa betetzea.
3. Gobernu Batzordeari dagokio sozietate profesionalak sartu ala ez erabakitzea.

89. artikulua. - Elkargoko sozietate profesionala izateari uztea.

Honako kasu hauetan, Elkargoan sartutako sozietate profesionala izateari utziko zaio:

a) Interesdunak berak Elkargoko Dekanotzari idatziz eskatzen badio, betiere betebehar profesional edo korporatibo guztiak bete badira.

b) Estatutu hauetan xedatutakoari jarraituz ezarritako diziplina-zehapena ezarri bazaio.

c) Sozietate profesionalaren lanbidean zuzenean eragiten duen lanbidean jarduteko gaitasungabetzea epai irmoaz ezarriz gero.

d) Elkargoaren Estatutuetan ezarritako betebeharra ekonomikoak betetzen ez baditu, Estatutu hauetan eta baliozkotasunez hartutako erabakietan ezarritako baldintzetan, dagokion diziplina-espedientea izapidetu ondoren.

e) Erregistroak sozietate hori sozietate profesionaltzat hartzen ez badu, kontuan hartu gabe sozietateak oraindik duen forma zibila, merkataritzakoa nahiz bestelakoa.

90. artikulua. - Elkargoaren eginkizunak eta ahalmenak sozietate profesionalei dagokienez.

Estatutu hauetan bildutako gainerako eginkizun eta ahalmenekin batera, Elkargoak gaitasuna izango du:

a) Sozietate Profesionalen Erregistroa eratzeko, horien araubidea ezartzeko eta horien funtzionamenduari dagokiona agintzeko, 2/2007 Legearen xedapenen eta estatutu hauen arabera.

b) Sozietate profesionalen kontratu soziala dela-eta, bazkideen artean, bazkideen eta administrarien artean eta bazkide zein administrarien eta sozietatearen artean gerta daitezkeen gatazketan esku hartzeko, bitartekari edo arbitro gisa. Gatazketan barne hartzen dira banatzeari, baztertzeari eta likidazio-kuota zehazteari buruzkoak.

91. artikulua. - Oniritzia.

Elkargoak sozietate profesional baten aldeko oniritzia ere eman ahal du, sozietatea behar bezala inskribatuta badago sozietate profesionalen erregistroan.

92. artikulua. - Sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia.

Elkargoko Gobernu Batzordeari dagokio sozietate profesionalen erregistroari buruzko araudia eta horren aldaketak onartzea.

93. artikulua. - Diziplina-erregimena.

1. Elkargoak diziplina-eginkizunak betetzen ditu, sozietate profesionalek egin litzaketen arau-hausteak (Elkargoko betebeharrak edo lanbide-deontologia urratzea) zuzentzeko eta prebenitzeko.
2. Estatutu hauen 73. eta 74. artikuluetan bilduta dago zehapen-prozedura.
3. Faltak honela sailkatzen dira: arinak, astunak eta oso astunak.

   3.1. Falta hauek arinak izango dira:

   a) Estatutu hauen aginduak edo Elkargoko zein Kontseiluko zuzendaritza-organoen aginduak betetzean desenkusa daitekeen arduragabekeriaz jokatzea.

   b) Lan profesionaletan garrantzi txikiko akatsak egitea.

   c) Lankideenganako garrantzi txikiko eragozpenak eta begirunerik eza.

   d) Elkargoko diziplinaren aurkako egintza arinak, bereziki, Gobernu Batzordeak edo Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak, hala badagokio, agindu dizkion lanetan; lanbidearen izenari edo ohoreari kalte egiten dieten egintzak, eta, oro har, lanbideko edo Elkargoko betebeharrak urratzeko gainerako kasuak, ustekabeko edo inguruabarren araberako arduragabekeria desenkusagarriagatik gertatu baldin badira.

   3.2. Falta hauek astunak izango dira:

   a) Estatutu hauen aginduak edo elkargoetako zein Kontseiluko zuzendaritza-organoen aginduak engainuz ez betetzea.

   b) Betebehar ekonomikoak ez betetzea.

   c) Lankideekiko begirunerik ez izatea, modu iraingarrian.

   d) Intrusismo profesionala estaltzea.

   e) Lanbidearen ohoreari kalte egiten dioten lanetan aritzea, lan horien ezaugarriak direla eta.

   f) Elkargoko diziplinaren aurkako egintza larriak, bereziki, Gobernu Batzordeak edo Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak, hala badagokio, agindu dizkion lanetan; eta, oro har, lanbideko edo Elkargoko betebeharrak urratzeko gainerako kasuak, ustekabeko edo inguruabarren araberako arduragabekeria desenkusagarriagatik gertatu ez badira.

   g) Aseguramenduaren betebeharra ez betetzea, indarrean dagoen legeriak hura eskatzen duenean.

   h) Bazkide profesionalek ez betetzea sozietate profesionala Sozietate Profesionalen Erregistroan inskriba dadin eskatzeko lege-betebeharra.

   3.3. Falta hauek oso astunak izango dira:

   a) Bi zehapen jasotzea urtebeteko epean bi falta astun egiteagatik; epea zenbatzen hasiko da lehen falta egin zen datatik.

   b) Delitua dakarten egitateak, lanbidearen ohoreari edo etikari kalte egiten badiote.

4. Falta arinak sei hilabetera indargabetuko dira; astunak bi urtera; eta oso astunak hiru urtera.

   Falten preskripzio-epea zenbatzen hasiko da faltak eragin zituzten egitateak egin ziren datatik.

5. Sozietate profesional batek faltak egiten baditu, honako zehapen hauek ezarri ahal izango dizkio Elkargoak:

   a) Falta arinak direnean: ohartarazpen pribatua edo ofiziozko ohartarazpena (sozietatearen espedientean jasoko da).

   b) Falta astunak direnean: ohartarazpen publikoa (sozietatearen espedientean jasoko da) edo aldi baterako baja sozietate profesionalen erregistroan, urtebete eta egun batetik beherako epean lanbidean jarduteko debekuaz.

   c) Falta oso astunak direnean: aldi baterako baja sozietate profesionalen erregistroan, urtebete eta egun batetik gorako eta hiru urtetik beherako epean lanbidean jarduteko debekuaz; edo behin betiko baja sozietate profesionalen erregistroan, lanbidean jarduteko behin betiko debekuaz.

94. artikulua. - Lanbidean sozietate gisa jardutea.

1. Elkargokideek beste elkargokide batzuekin batera jardun ahal dute beren lanbidean, zuzenbidean onartutako edozein forma hartuta. Hala dagokionean, beste diziplina batzuetako profesionalekin batera ere jardun ahal izango dute. Lanbidean sozietate gisan jarduten badute, Sozietate Profesionalen Legeari eta estatutu hauetan ezarritako berariazko betekizunei lotuta egongo da.
2. Sozietate profesionalak nahitaez inskribatuko dira helbide soziala duten elkargoko Sozietate Profesionalen Erregistroan. Erregistro horrek kudeatu eta gainbegiratuko du 2/2007 Legean eta estatutu hauetan ezarritako legezko baldintzak betetzen direla. Sozietate profesionalak dagokion elkargoko sozietate profesionalen erregistroan inskribatuta egon gabe lanbide-jarduerak egiten baditu, arau-hauste deontologikoa eta zehatzailea egiteaz gain, aplikatu beharreko lege-esparruaren araberako erantzukizunak ere izango ditu
3. Sozietate profesionalen erregistroa arautuko dute Sozietate Profesionalei buruzko Legean eta Estatutu hauetan ezarritako arauek, bai eta aurreko arau horiek garatzeko berezko araubidean ezarritako guztiak ere. Gobernu Batzordeak onartu beharko du araubide hori.
4. Sozietate profesionalak Elkargoko sozietate profesionalen erregistroan izena ematen badu, honako ondorio juridiko hauek sortuko dira: lehenik, sozietatea Elkargoan sartuko da; eta, bigarrenik, sozietate profesionalak errespetatu beharko ditu Elkargo Profesionalei buruzko Legeak, 18/1997 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzkoak, eta Estatutu hauek Elkargoari elkargokide profesionalekin lotuta esleitzen dizkioten eskumenak, eta, bereziki, Estatutu hauen 5. eta 6. artikuluetan ezarrita daudenak.

95. artikulua. - Sozietate profesionalen eskubideak eta betebeharrak.

1. Sozietate profesionalen erregistroan izena eman duen sozietate profesionalak estatutuon 13. eta 14. artikuluetan aitortzen diren eskubideak eta betebeharrak izango ditu, honako hauek izan ezik: 13. artikuluaren c) eta d) letretan ezarritakoak; Elkargoko organoetan parte hartzeko eskubideak eta hauteskunde-eskubideak (eskubide horiek pertsona fisikoek baino ez dituzte, 13. artikuluko e) letran eta 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera); 14. artikuluko e) eta f) letretan agindutako betebeharra.
2. Horrez gain, sozietate profesionalak erregistroan izena eman baldin badu, elkargoaren zerbitzuak –Estatutu hauetan adierazita daude– erabili ahal izango ditu, elkargokide diren pertsona fisikoek erabiltzen dituzten baldintza beretan.

XII. TITULUA - ESTATUTUAK ALDATZEA

96. artikulua. - Estatutuak aldatzeko ekimena.

1. Elkargoaren estatutuak aldatzeko ekimena Gobernu Batzordeari dagokio, edo betebeharrak egunean dituzten elkargokideen kopuru jakin bati, baldin eta elkargo-errolda osoaren % 20, gutxienez, ordezkatzen badute.
2. Aldaketa-proposamenarekin batera aurkeztuko dira testu artikulatua eta justifikazio-memoria laburra. Aurreko atalean adierazitako elkargokideen ekimenaren kasuan, Gobernu Batzordeak proposamenari buruzko txostena egin ahal izango du ekimena jaso eta gehienez ere 2 hilabeteko epean, egokitasunari zein legezkotasunari dagozkion alderdietan, eta jendaurrean jarriko den dokumentazioari gehituko zaio.

97. artikulua. - Estatutuak aldatzeko prozedura.

1. Aldaketa-proposamena aurreko artikuluaren baldintzetan aurkeztu ondoren, hilabete bateko jendaurreko informazio-epea irekiko da, elkargokideek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Ingeniaritzaren Kontseilua zuzenketak aurkezteko aukera izan dezaten. Jendaurreko informazioa eskaintzeko, iragarkia argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Elkargoaren lurralde-esparruko tirada handieneko bi egunkaritan, Elkargoaren web-orrian eta elkargokideei zuzendutako informazio-buletin batean. Aldaketa-proposamenaren dokumentazioa –testu artikulatuak, justifikazio-memoriak eta, hala badagokio, Gobernu Batzordearen txostenak osatua– berori eskatzen duten elkargokideen eskueran egongo da Elkargoaren bulegoetan.
2. Aurkezten diren zuzenketekin batera, era berean, proposatutako zuzenketaren testua eta justifikazio-memoria laburra aurkeztuko dira, eta Elkargoaren atari elektronikoan argitaratuko dira, jakitera eman eta kontsultatzeko.
3. Horretarako deitutako Batzar Nagusiari edo Ezohiko Batzar Nagusiri dagokio Estatutuen aldaketa onartzea. Batzarra ezohikoa bada, zuzenketak hartzeko epea amaitu eta hurrengo bost egunen barruan deituko da, eta deialdia egiten den egunetik bi hilabete igaro baino lehen egin beharko da.
4. Batzar Nagusia lehen deialdian baliotasunez eratuta egongo da eskubidea duten erroldako elkargokideen erdiak gehi bat elkartzen badira. Quorum hori lortuko ez balitz, Batzar Nagusia bigarren deialdian eratu ahal izango da, lehen deialdirako adierazitako ordua baino ordu erdi geroago, parte-hartzaileen kopurua edozein izanda ere.
5. Batzar Nagusian, Dekanotzak edo Gobernu Batzordeko kideak, berorrek izendatuak, edo, hala badagokio, proposamena egin duten elkargokideen ordezkari batek defendatuko du erreforma-ekimena. Ondoren, aurkeztutako zuzenketa bakoitzaren ordezkari batek defendatuko du.

   Baztertutzat joko dira defendatzeko deia egiten denean proposatzaileren batek defendatzen ez dituen zuzenketak. Zuzenketak sinatu ez dituztenei ezin izango zaie eginkizun hori eskuordetu.
6. Esku-hartzeak amaitu ondoren, aurkeztutako zuzenketa bakoitza bozkatzeko txanda irekiko da. Zuzenketa onartu egingo da boto-eskubidea duten bertaratutakoen (ordezkatuak barne) bi herenen aldeko botoa jasotzen badu.
7. Zuzenketen txanda amaitu ondoren, proiektuaren behin betiko testua bozkatuko da, eta onartu egingo da boto-eskubidea duten bertaratutakoen (ordezkatuak barne) bi herenen aldeko botoa jasotzen badu.
8. Aldaketa onartzen denetik hasi eta hilabeteko epean, Idazkaritzak, Dekanotzaren oniritziarekin, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailari igorriko dizkio onartutako estatutuen testu osoa eta Batzar Nagusiaren onarpen-erabakiaren egiaztagiria eta lehen atalean aurreikusitako jendaurreko informazio-tramitea bete izanaren ziurtagiria, Agindu bidez onartzeko, Sailak berak eta Legelarien Euskal Kontseiluak txostena eman ondoren, aldaketa agindu bidez onartzeko edo legeriak une bakoitzean ezartzen dituen tramiteak betetzeko.
9. Horrela aldatutako estatutuak Industria Ingeniaritzako Kontseilu Nagusiari igorriko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.
10. Artikulu honetan aurreikusitako prozedura Estatutuen aldaketa partzialei zein aldaketa osoari aplikatzekoa izango da.

AZKEN TITULUA

98. artikulua. - Elkargoa desegitea.

1. Elkargoa desegin ahal izango da, horretarako bereziki deitutako Ezohiko Batzar Nagusian boto-eskubidea duen elkargo-erroldaren hiru laurdenak zuzeneko bozketan horren alde bozkatzen duenean.

2. Batzar Nagusiaren erabakia Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 31. artikulua betetzeko. Artikulu horretan adierazten diren edo legez dagozkion baldintza eta ezaugarrien arabera desegingo da Elkargoa.

3. Beste elkargo profesional bat sortuz edo beste elkargo batean edo batzuetan sartuz deseginez gero, lehenengoaren harreman eta egoera juridiko guztietan subrogatuko dira.

4. Elkargoa desegiten bada betebehar guztiak bete ondoren, gerakina, baldin badago, indarrean dagoen legeriaren arabera erabiliko da. Halakorik ezean, Elkargoaren antzeko interes orokorreko helburuak dituzten erakundeei eman ahal izango zaie, Batzar Orokorrean zehazten den moduan, eta betiere aplikatu beharreko legezko xedapenekin bat etorriz.

5. Elkargoak bere helburu juridikoa eta ahalmena galduko ditu desegiteko araua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unean, beste elkargo batzuk sortuko balira salbu.

AZKEN XEDAPENA

1. Estatutu hauek indarrean jarriko dira behin betiko onartzen diren unetik bertatik.

2. Elkargoari ahalmena ematen zaio Estatutu hauek garatzeko beharrezkoak diren xedapen orokor guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2025ko martxoa